

BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA

CONSEJO DE LA JUVENTUD DE EUSKADI
EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA

www.egk.org

Argitaratze data: 2015eko azaroa.

Erredakzioa: Janire Muñiz Jauregi. EGK-ko berdintasun teknikaria.

Diseinua: A. Elorza Pinedo.

AURKIBIDEA

Sarrera	5
Justifikazioa	7
Helburuak	12
Hipotesiak	14
BARNE-ANALISIA	17
Historia.....	18
EGKren osaera	23
EGKren berdintasun analisia	32
Erakundeko emakumeen eta gizonen egoera	32
Erantzukizun-karguak.....	33
Langileak eta lan-arloak	35
Azterlana	37
KANPO-ANALISIA	47
Esparru teorikoa	48
Emakumea eta generoa	48
Sexu- eta afektibitate-aniztasuna	52
Metodologia	56
Genero-berdintasunaren pertzepzioa	59
Sexu- eta afektibitate-aniztasunaren pertzepzioa	75
Ondorioak	89
GOMENDIOAK ETA PROPOSAMENAK	95
Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari zuzenduriko proposamenak	97
Instituzio eta gazte erakundeei zuzenduriko proposamenak	98
Bibliografia	100

Jarraian, **Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK)** egindako berdintasunari buruzko diagnostiko bat aurkeztuko da, Berdintasun Plan baten oinarriak finkatzeko xedez, nahiz zeharka eta modu zehatzean berdintasuneko eta bereizketarik ezeko ikuspegi bat txertatzeko asmoz, bai EGKren egunerokoan, bai gazteen elkarte- eta partaidetza-ehunean.

Hortaz, helburu horiek lortu ahal izateko, diagnostikoak bi zati ditu: Lehenengoak, Kontseiluaren barne-analisi bat du. Analisi horretan, deskribatzen dira zeintzuk diren garatu beharreko funtzioak eta aukera-berdintasunaren arloan erakundearen egoeraren ikerketa kuantitatibo bat ere gehitzen da, langileen eta erakundearen errealitatea ezagutze aldera, eta haien premiak antzemateko asmoz, EGKren kokapena hobetzea ahalbidetuko duten helburuak zehaztu ahal izateko emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari dagokionez.

Bigarren zatian, ikerketa bat dago, eta 16-30 urte arteko 85 gaztek (emakumeak eta gizonak) emakumea eta generoari eta sexu- eta afektibitate-aniztasunari buruzko ikerketa batean parte hartzen dute. Gazte horiek Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko elkarteetakoak, kultura-taldeetakoak, ikasleen erakundeetakoak, hezkuntzako aisialdiko federaziokoak, alderdi politikoko gazterietakoak edo sindikatu etakoak dira.

Hezkuntzaren, lanaren, ekonomiaren, etxeko eta familiako erantzukizunen arloan, genero-indarkeriaren eta sentsibilizazio-kanpainen arloan **emakumeek gaur egun duten egoerari buruz gazteek duten pertzepzioa ezagutzea da xedea.**

LGTB (lesbianak, gayak, transexualak eta bisexualak) taldeari dagokionez, Euskadiko gazteen pertzepzioa neurtu nahi da sexu- eta afektibitate-aniztasunari buruz: biztanleriak talde horrekiko duen tolerantzia, bereizketa-ekintzarik badagoen eta zer motatakoak diren, sexu-orientazioagatik edota sexu-identitateagatik eduki ditzaketen zailtasunak ezagutzea, eta gazteek duten iritziaz jabetzea LGTB pertsonen eskubideak bermatzen dituzten neurriak ezarri behar izateari buruz.

Horrekin guztiarekin, hainbat ondorio eta proposamen lortuko dira, eta arlo bakoitzeko administrazioari eta erakundeari bideratuko zaie, baita EGK-ko lantaldeari berari ere. Azken finean, bizi dugun desberdintasun-egoera antzeman nahi da, hobetu beharreko alderdiak ezagutu, berrikuntza-ekintzak planteatzeko, eta **gizarte osoarekin batera lan egin, irrikatutako berdintasuna lortzeko.**

Euskal gizartea askotarikoa eta heterogeneoa da, eta elkarrekin bizi gara etengabe eboluzionatuz eta egunerokoaren erako askotako eraldaketetara egokituz. Azken hamarkadetan aldaketak egin dira, eta berdintasunerako urrats handiak izan dira; hala ere, egiteko dugun bidea paisaia luzea da, bota beharreko oztopoz beteak eta lortu beharreko erronka asko dituena.

Jakina denez, emakumeek eta gizonek historian zehar tradizionalki izan dituzten paperek aldaketa handi bat izan dute. Emakumeek partaidetza handiagoa izan dute lan-merkatuan; hezkuntza-maila guztietara iritsi dira; presentzia handiagoa izan dute prestakuntzan eta kulturari, eta, apalago bada ere, erabaki-guneetan. Aurrerapen horiei esker, gizartean aldaketa handiak gertatzen ari dira emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean aurrera egiteko. Aldaketa horiek gertatzeko, funtsezkoa izan da mugimendu feministen ahalegina eta lana, eta emakumeen eskubideen alde isilean lan egin duten emakume guztien ahalegina.

Hala ere, enpleguari, etxeko lanei, osasunari erabakiak hartzeari, politikaren eta ekonomia-aren arloko ordezkartzari, emakumeen aurkako indarkeriari eta abarri buruzko informazioetan nagusitasuna ematen zaie gizonei emakumeen gaitetik, eta sexuaren araberako jokabidea duten patroizko soziokulturalak eta estereotipoak oinarri dituzten harremanetan eta gizarte-kokapenean hierarkizazioa dago.

Gaur egungo emakumeek zailtasun handiagoak dituzte enplegua lortzeko; soldata baxuagoak jasotzen dituzte gizonekin alderatuta, funtzio berberak betetzen badituzte ere; maila baxuagoko postuetan jartzen zaie presuntakuntza handiagoa izan arren; erabakiak hartzen diren espazioetara iristeko zailtasun handiagoak dituzte, baita erantzukizun politikoko postuak eskuratzeko ere; etxeko lanen eta mendeko edo beren kargu dituzten pertsonen zama handiena beren gain hartzen jarraitzen dute; hainbat mota-tako indarkeria (fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa) jasaten dute emakume izateagatik soilik; eta, gainera, indarkeriatzat hartzen ez diren eta indarkeria diren (jelosia, kontrola, manipulazioa, etab.) ekintza ugari jasaten dituzte.

Nolanahi ere, gizartea bat dator gero eta gehiago emakumeen berdintasunerako eskubidea onartzeari dagokionez, baita gizonen gehiago parte hartzeko eta etxeko betebeharren erantzukide izatearen premiari, kome-nigarritasunari eta justiziari dagokionez ere; horrela, arlo publikoan eta pribatuan berdintasunezko parte-hartzea duten emakumeen eta gizonen gizartea bat sortuz.

Onarpen-korrante horri jarraitzen diote Euskadiko gazteek; izan ere, onarpena eta babesa erakusten dute sexuen arteko berdintasun-prozesuei dagokienez, eta onartzen dute egoera kaxkarragoa dela emakumeentzat gizonentzat baino. Horregatik, **espazio guztietan errepikatu egiten dira aldeak, adina edozein delarik ere, eta, berdintasunaren arloan hobekuntzak egon arren, gazteek ezagutu egin behar dute bizi dugun egoera, ulertu egin behar dute ekitatearen aldeko borrokaren garrantzia, guztiontzako hobekuntzez jabetuz, eta egoera hobetzeko jokabide bat hartu behar dute, aldaketaren protagonista izanez.** Berdintasunean lan egin nahi dugu, helburu hori estrategikoa eta lehentasunezkoa izan dadin gure gizartean.

Gainera helburu horiek garrantzitsuak dira azkenaldian hainbat argitalpen larrik jakinarazten dutelako gazteek ez dutela hautematen zenbait indarkeria-mota¹. Gazteenek uste dute ia saihestezina edo onargarria dela zenbait baldintzetan bikotekideen ordutegiak kontrolatzea, familia edo lagunak ikustea saihestea, lan egiten edo ikasten ez uztea, edo egin dezaketena edo egin ezin dutena esatea. Erantzun-mota horri arreta berezia jarri behar zaio, tolerantzia horiek tratatu txarren beste jokabide larriago batzuen aurrerari izan baitaitezke.

Indarkeriaren eta bereizketaren harira, eta pertsonen arteko berdintasuna lortzeko garrantzitsuak diren beste gai batzuei erreferentzia eginez, **garrantzitsua da LGTB gazteen eskubideak bultzatzea eta talde horien premiak eta interesak Euskadiko gizarte osoari helaraztea.**

Urte luzez, pertsona-talde hori ikusezina izan da gizateriarentzat, zigortuak izan dira beren generoagatik edo sexu-orientazioagatik, eta iritzi publikoak mespretxatu egin ditu. Gaur egungo egoerara iristeko gauzatu behar izan den ahalegina eta lana luzea eta neketsua izan da, baina, hala ere, zenbait eskubide aitortu zaizkie, hala nola: ezkondu ahal izatea, izatezko bikote izatea, lesbianak Ugalketa Lagunduko Legean txertatzea, sexu-aipamenean eta, hortaz, izenean, aldaketak egin ahal izatea, transexualentzako osasun-arreta integrala izatea, etab. Eskubide horiek guztiek Estatuko Aldizkari Ofizialean jaso eta argitaratu diren arren, ez da erraza gizarteak horiek onartzea eta ulertzea, ezarrita dagoen gizarte-eraikuntza androzentrikoa dela-eta.

Euskadin bereizketa nabarmenenak eta hautemangarrienak murriztu egin diren arren, hau da, talde hori handi-handika arbuizatzea (indarkeria fisikoa, bazterketa, isolamendua, etab.), bigarren mailako intentsitateko bereizketak² geratzen dira, hots, lehen begiradan ikusten ez direnak, baina gizarte-antolakuntza patriarkala eta heteronormatiboa oso errotuta duen gizarte baten ondoriozkoak direnak.

Oso garrantzitsua da adieraztea patriarkatuaren heteronormatibotasunak bereizketara eta maila baxuagoan jartzera eramaten duela bai sexu-orientazio disidente oro, bai gizona-emakumea dikotomia errespetatzen ez duen identitate generiko oro —izan: trabestiak, transexualak, intersexualak, transgeneroak, lesbianak, bisexuala, gayak. Arestian aipatu bezala, lege-arloan borroka irabazita izan arren, horrek ez du esan nahi kalean

¹ DE MIGUEL LUKEN, Verónica (2015). Percepción de la Violencia de Género en la adolescencia y juventud, Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.interior.gob.es/documents/642012/1626283/Percepci%C3%B3n+violencia+g%C3%A9nero+en+la+adolescencia+y+juventud+ene+2015.pdf/4921b47f-3d08-426c-af9d-ae5b9f5e1244>

² Bigarren mailako intentsitatea: Aldartek erabilitako kontzeptua da gizarteak hautematen ez dituen bereizketak izendatzeko.

gauzak modu berean errespetatzen direnik. Ezberdinak izateak ulertezintasuna dakar, eta zuriaren eta beltzaren artean koloreen milaka gama dau dela jakin arren, kostatu egiten zaigu onartzea errealitatea askoz ere konplexuagoa eta aberatsagoa dela gure etiketa eskasak baino.

Hori dela-eta, EGK-k uste du garrantzitsua dela Euskadiko gazteen artean bereizketarik ezaren eta sexu- eta afektibitate-aniztasuneko eta generoko eskubideak erabat errespetatzearen kultura sustatzea, berdintasunari buruzko sentsibilizazio- eta ezagutza-ekintzak gauzatuz, gazteen jarrera onak aldarrikatuz, protagonismoa emanez, eta homofobiaren edo transfobiaren edozein moduren aurka borroka eginez, Euskadiko LGBT pertsonen alde. Bestalde, euskal herri-administrazioek beren jarduera osoan berdintasuna erabat errespetatzen eta sexu-orientazioagatik eta genero-identitategatik bereizketarik eza sartzan ahaleginduko gara, eskubide horiek benetan eta eraginkortasunez gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz.

Berdintasunari buruzko diagnostiko honen bidez, Euskadiko gazteen gizarte-errealitatea islatu nahi da genero-berdintasunari eta sexu-eta afektibitate-aniztasunari dagokionez. Txosten honen azterketarekin landu beharreko premiak eta interesak antzemango dira, eta herri-administrazioei eta Gazteriaren Kontseiluari berari eta haiei atxikitako erakundeei helarazi beharreko proposamenak aurkeztuko dira, gizarte-aldaketa batzuk sortzeko asmoz Euskadiko emakume eta gizon gazteen nahiz LGTB pertsonen berdintasunerantz aurrera egiteko.



HELURU OROKORRAK

Laburbilduz, berdintasunari buruzko diagnostiko honen helburuak bi dira:

1.HELBU

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren egunerokoan **berdintasunaren ikuspuntua** ezartzea.

2.HELBU

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan **Berdintasun Plan bat** garatzeko **oinarriak** sortzea.

HELBURU ZEHATZAK

Helburu orokorrekin bat etorrira, helburu zehatzak honako hauek dira:

- H.Z.1** **Egoera ezagutzea** emakumeen eta gizonen artean tratua eta aukera-berdintasunari dagokionez eta gazteriaren arloan sexuagatiko bereizketari eta sexu-aniztasunari dagokionez.
- H.Z.2** EGKn parte hartzen duten erakundeetako kide diren gazteek **desberdintasunei buruz dituzten pertzepzioen** berri izatea.
- H.Z.3** Gazteen artean genero-gaiei eta LGTB pertsonen buruzko **egoera orokorraren proiektzioa** egitea, gazte parte-hartzaileak baliatuz kontrol-talde gisa.
- H.Z.4** **EGK-ko langileek** zer berdintasun-pertzepzio duten ezagutzea.
- H.Z.5** **Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren analisi bat egitea**, eta zehazki, egungo langileena, berdintasunaren arloan erakundearen praktikak ezagutzeko.
- H.Z.6** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan **berdintasunaren ikuspegi txertatzen den edo ez** ezagutzea.
- H.Z.7** Emakumeari eta generoari nahiz sexu- eta afektibitate-aniztasunari buruzko ikerketan eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari **barne-analisan** lortutako emaitzei buruzko **ondorioak** ateratzea.
- H.Z.8** **Berdintasunaren arloan hobetzeko proposamenak** aurkeztea Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari eta herri-administrazioei.

Ikerketan zehar kontrastatu beharreko hipotesiak honako hauek dira:

HIP.1

Ballarín, Birriel, Martínez eta Ortiz egileek *La Igualdad de Oportunidades. Los discursos de las mujeres sobre avances, obstáculos y resistencias* liburuan esaten duten bezala: «Agian, emakumeak ordaindutako lan-munduan sartzea izan da men-debaldeko gizartearen egiturazko aldaketa garrantzitsuena XXI. mendean». Hala ere, **desberdintasunak egoten jarraitzen dute sexuari eta generoari dagokionez, eta emakume gazteak gizonak baino pauso bat atzerago daude.**

HIP.2

Coll Planasen (Coll Planas, 2010)³ arabera, **generoa da pertsonen arteko hierarkiak ezartzen dituen elementuetako bat**, eta integrazioko eta segregazioko koka-penetan banatzen ditu. Argitalpen horri lotuta, EGK-k erakutsi nahi du **baieztapen horrek indarrean jarraitzen duela, eta gazteetan ere aplikatzen dela.**

HIP.3

Emakume gazteek genero-desberdintasunei eta sexu- eta afektibitate-aniztasunari buruzko pertzepzio handiagoa dute Euskadiko gizon gazteek baino.

HIP.4

Gazteen Euskal Behatokiak 2012an 15-29 urte arteko 1.500 euskal gazteri egindako inkesta baten arabera, % 87 sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde dago, eta % 81ak babestu egiten du legezko sexu-aldaketa⁴.

Euskadiko gazteen artean LGTB pertsonak onartu arren, oraindik ere badaude LGTB taldearekiko bereizketa-ekintzak (irainak, erasoak, mehatxuak eta abar), eta horiek zaildu egin dezakete gizartean duten ikusgarritasuna.

HIP.5

LGBTB taldearen baitan, **pertsona transexualek dituzte zailtasun handienak** Euskadiko gizarteak onartuak izateko.

HIP.6

Gazte parte-hartzaileek gizarte-jarrera aldekoa-koak dituzte emakumeekiko eta genero-gaiekiko, baita LGTB biztanleekiko ere, gainerako biztanle gazteek baino.

HIP.7

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren **zenbait praktiketan ez da txertatzen berdintasun-ikuspegia.**

³ MUJIKA FLORES, Inmaculada; OLAORTUA GONZÁLEZ, Elena; ORTIZ ATIENZA, Josune y VILLAR SÁENZ, Amparo (2013:16). *Lesbianas con recursos: Una mirada sobre el acceso y el uso de los recursos sociales en la CEA por parte de las mujeres lesbianas*. Bilbao: Aldarte

⁴ EFE/EUROPAPRESS (2012). Euskal gazteen % 87 ezkontza homosexualen alde dago. El Correo Bizkaia, maiatzak 17. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.elcorreo.com/vizcaya/20120517/mas-actualidad/sociedad/jovenes-vascos-esta-favor-201205171135.html>

BARNE-

ANALISIA

HISTORIA

EGK-REN OSAERA

EGK-REN BERDINTASUN ANALISIA

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) topaketa-gune bat da, eta gaur egun, gazteen 60 erakundek osatzen dute. Kontseilu honen egiteko nagusietako bat da neurriak proposatzea eta iradokizunak egitea Euskadiko gazteen arazoekin eta interesekin lotuta, ikerketak eginez, txostenak gautzatuz edo bestelako bitartekoak baliatuz.

EGK sortu zenetik gazte askoren lanarekin eta ahaleginarekin eraikitzen joan da, eta horiek xede beraren alde borrokatu ziren: **gazteen eskubi-deak defendatzea eta politika publikoei haien premiak eta interesak helaraztea**. Kontseilua duela 29 urte sortu zen, Euskadiko hainbat erakundetako gazteek sustatuta; gazte horiek ia hamar urtez bildu ziren mota horretako gazteen sare bat osatzeko, eta 1983. urtearen amaieran, EGKren Kudeaketa Biltzarra eratu zuten. Bere aldetik, Eusko Legebiltzarra erakundea osatzeko arau bat prestatzen ari zen: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin Legea, 1986ko maiatzaren 27an aldarrikatua. Kontseilua zuzenbide publikoko erakunde gisa aldarrikatu zen, bere nortasun juridikoa zuen eta bere xedeak betetzeko gaitasun osoa zuen.

Araua argitaratu ondoren, zein izan beharko lirateke hurrengo urratsak? Hasteko, erakundeen biltzarrak Kudeaketa Batzorde bat hautatu behar zuen, hau da, EGK abian jartzeaz arduratuko zen talde bat. Eta horrela egin zen. Urtebetean baino gutxiagoan, 30 erakundek eta taldek gehitzeko eskaera egin zuten, eta azkenean, 40 baino gehiago bildu ziren. Gazteen puzzle haren piezak mihiztatzeko zihozten, eta 1986ko azaroan Euskadiko Gazteen Kontseiluaren Biltzar Eratzailea egin zen. EGK-k ez zuen atzerabiderik.

Une horretatik aurrera, hurrengo biltzarretan, erakundeek adostu zuten nola funtzionatu behar zuen Kontseiluak, nola antolatu behar ziren biltzarrak eta zeintzuk izango ziren erakundearen lan-ildoak. Ildo horiek, jakina, oso lotuta

egon ziren urte haietako errealitate politikora eta sozialera, eta horrela sortu zen EGKren lehenengo gatazka handia: **borroka antimilitarista**. Hasteko, informazio-guneak sortu ziren, non errekrutatze militarra-
ren aurrean har zitezkeen aukerei buruzko informazioa jasotzen baitzen, informazio-txostenak banatu ziren, hitzaldiak eta mintegiak eskaini ziren, kanpainak egin ziren... Eta lanaren bideari jarraituz, Kontseiluak bere mugak zabaldu zituen bakerako heziketarantz, eta Kontseiluaren funtsezko lan-ildo gisa adierazi zen hori. Hori horrela, 1992an **Bakea Euskadin** dokumentua idatzi zen.

2001ean «milia» indargabetu ondoren, EGK-k bere lan antimilitaristarekin jarraitu zuen, eta bakerako hezkuntzarako aukerak areagotuz jarraitu zuen. Horretarako, hainbat jarduera esanguratsu egin zituen, eta, bestek beste, 2002an Elkarri erakundearen eskutik **Elkarrizketa-guneak** antolatu zuen gazteen erakundeekin eta erakundeetara lotu gabeko gazteekin Euskadiko bakegintzari buruz, mugarik gabe hitz egiteko eta gazteen iritzia gizarteari jakinarazteko asmoz

Gaur egun, **«Bake Ibilbideak»** egin dira, eta euskal gazteek beren iritzia eman dute Euskadiko iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko bake-egoerari eta bizikidetzari buruz. Lan horrek emaitza bikainak izan ditu, eta bideo dinamiko eta interesgarri batean jaso da.

Izan ere, **Kontseilua buru-belarri aritu da sareak josten**. Hots: harremanetan jartzen ezagutzen ez ziren erakundeak; talde desberdinek proiektu berari ekiten; eta kausa beraren inguruan askotariko taldeak pilatzen dituzten foroak sortzen eta koordinatzen. Laburbilduz, topaguneak sortzen; **izan ere, EGK-k sendo uste du elkarrekin lan eginez gero soilik hobetu daitekeela mundua**.

Baina, zer gertatzen da milaka eta milaka pertsonari bidegabekeriak eragiten dieten urruneko gatazkekin? Beste pertsona gazte batzuen errealitatea ezagutzea eta gazteen beste erakunde batzuekin aliantzak ezartzea ezinbestekoa zela ziur izanda, EGK-k hainbat herrialdetako kontseilu askotan parte hartu du, eta urteetan zehar trukeak eta bisita antolatuak egin ditu. Azpimarratzeko modukoa da boluntarioak bidali zirela Bosniako eta Kroaziako errefuxiatu-eremuetara 1992an eta 1993an.

EGK Euskadin sortu zen arren, ez zen sortu soilik Euskadirako. Trukeak egiteko, beste kontseilu batzuekin harremanak estutzeko eta baterako

proiektuak diseinatzeko aukera bazegoen, zergatik ez zen lankidetzan arituko Nafarroako Gazte Kontseiluarekin? Bi kontseiluak sortu eta urtebetera, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten, eta 1990eko abenduan kontseiluen federazioaren estatutuen proposamena onartu zen; harrez gero, **Consejos de la Juventud de Euskal Herria / Euskal Herriko Gazteriaren Kontseiluak (EHGK)** izendatu zen. Urte luzez, ekintzak egin zituzten elkarrekin, baina 1990eko hamarkadaz geroztik, harremanak hainbat gorabehera izan zituen, eta batasuna ahultzen hasi zen. Beheraldiak gorabehera, EGK-k federazioaren aldeko apustua sendotzea erabaki zuen, eta Lapurdira, Nafarroa Beherera eta Zuberoara zabaltzea. 2006an ofizialki aurkeztu zen **Euskal Herriko Gazteriaren Kontseilua**, Gazte Bilguneak sustatua. Kontseilu horretan, Euskadiko eta Nafarroako kontseiluek parte hartzen dute, baita *mugaren* bi aldetako zenbait erakunde ere. Besteak beste, Kontseiluaren egitekoa izan zen Euskal Herriko gazteen eskubideen gutuna idaztea. Halaber, gazteriarekin lotutako hainbat gairi buruzko diagnostikoak egin zituen. Nolanahi ere, sare bakoitzak bestelako dinamika zuenez, lan komuna informazioa trukatzeko izan zen soilik, eta gaur egun, Kontseilua ez aurrera eta ez atzera dago.

Denboran zehar egindako bidaiarekin jarraituz, lan-ildoei dagokienez, 1997an **aisialdi hezitzaileko erakundeen koordinatzailea sortu zen: Astialdi Foroa**. Hasiera batean, foro horren helburuak baterako ekimenak sortzen zen, baita kezkak partekatzea, administrazioari ahots bakar batekin zuzentzea eta aisialdi hezigarriko eragileen lana eza-gutaraztea eta haren garrantzia azpimarratzea ere. Gaur egun, hiru euskal lurralde historikotan martxan jarraitzen du, eta aisialdian asoziazionismoa indartzeko eta horren bidez gizartea eraldatzeko ekimenak bultzatzeko lan egiten dut

Era berean, hezkuntza formalean EGK-k **«Hezkuntza Foroa»** lantaldea koordinatzen du. Foro hori ikasleen kontseiluek eta erakundeek osatzen dute, eta haren bidez jakinarazten dira unibertsitateko ikasleen premiak, kezkak eta proiektuak. Azkenik, EGK **Euskadiko Eskola Kontseiluarren kidea da**, eta ekarpenak egiten ditu gazteen ordezkari gisa.

Bestalde, enpleguaren eta etxebizitzaren arloetan, EGK-k beti aldarrikatu izan ditu lan-baldintza bidezkoak eta lan-prekarietatea salatu du. Horretarako, inkestak eta txostenak egin ditu gazteei eta enpleguari buruz, baita ikerketa eta jardunaldiak ere, zeinak 1994tik aldi-aldian antolatu diren.

Krisi ekonomikoa dela-eta, EGK-k hainbat proiektu egin ditu gazte-enplegua sustatzeko xedez abian jarri diren tranpa-formulei buruzko gogoeta egiteko, hala nola: «**SOS gazte, bidali zure postala lan-erbeste-ratzearen aurka**», «**Gazte, ekin ala plof**» edo 2015eko hasiera aldera aurkeztu zen «**Prekarioka**» lana; azken horretan, gazteen prekaritatea salatu zen.

Etxebizitzari dagokionez, gertaera gogoangarri nagusia 2004an izan zen, **Etxebizitza Guztiontzat plataforma** sortu zenean. EGK sustatu zuen espazio hori bere garaian, eta sindikatu eta talde desberdinak biltzen ziren beharrezkoa ikusten zutenean, etxebizitza-politikei buruz ahots bakar batekin kokatzea lortzeko. Plataforma modu geldiezinean eta anbizioarekin hasi zen 2006an, eta Etxebizitza Sailburuordetzak proposatutako moduan, Etxebizitza Politiken Partaidetza Foroa eratu zuen plataformak, eta ekarpenak egin zizkion 2007an Etxebizitza Legeari. Denbora igaro ahala, plataforma hori desagertu egin zen, eta beste bat sortu zen, EtxebizHitza deiturikoa, eta «**Emantzipa...zer?**» izeneko lantalde batean eratorri zen. Azken horretan, Etxebizitza Legearen proposamena eta beste neurri ba-tzuk aztertu ziren, eta dekalogo bat egin zen lege alternatibo baterako oinarriekin. Gaur egun, espero da Etxebizitzaren atala berraktibatzea eta oreka bilatzea berrenpleguarekin; azken horrek gaur egun indar handiagoa du.

Bestalde, genero-ikuspuntua ere indartsu iritsi zen EGKra, batik bat 1990eko hamarkadaren amaiera aldera. 2000. urtean, Emakumeen Mundu Martxara atxiki zen Kontseilua, eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Emakunderekin batera, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako jardunaldiak antolatu zituen: «**Hiru egunez ez: esan beti ez emakumeen aurkako indarkeriari**». Hamabost urteren ondoren, gazteen sareak konprometituta jarraitzen du argitalpenak egitearen, jardunaldiak antolatzearen eta topaketak egitearen arloan. 2011n, «**Non daude emakume gazteak?**», «**Emakume gazteak bularreko minbi-ziaren aurka**» eta «**Alda dezagun tratua**» topaketak antolatu zituen. Gaur egun, arloa berraktibatzeke modua bilatu nahi da, eta emakumearen, generoaren eta LGTB pertsonen arloan lan egiten da.

Aipatu beharreko beste arlo bat komunikazioa da, eta EGKn egindako ekintzak hedatzeaz arduratzen da hainbat bitartekoren bidez. 2010ean, web orri berria sortu zen, eta Kontseilua sare sozialetan murgildu zen bete-betean, besteak beste, Facebook, Twitter eta Tuenti sareetan. Argitalpenak egiteaz gain, lehiaketa parte-hartzaileak eskaintzen dituzte

gaurkotasunezko hainbat gairi buruz, eta kaleko ahotsak entzuten diren plataforma nagusia da.

Azkenik, Partaidetza arloa aipatu behar da. Arlo horretan Kontseiluko teknikarien artean lan koordinatu bat egon zen arren, espazio hori ez zen sortu bere horretan 2013ra arte. Egun, lan aktiboa gauzatzen ari da, eta ikerketa dinamiko interesgarriak egiten ditu Euskadiko gazteriaren parte-hartzeari buruz; besteak beste, «**Gazteak eta parte-hartzea**» (2013) ikerketa kualitatiboa eta «**Gazteen parte-hartzerako gida**» (2014) nabarmendu daitezke.

EGK 30 urte betetzear dago, eta gaztea izan arren, esperientzia eta indar nahikoa ditu gazteen eskubideen alde lan egiten jarraitzeko. Erakunde honek erakundeen eta gazte-elkardeen arteko zubi-lanak egiten jarraituko du, gure ahotsak maila gorenera iritsarazten eta gazteen partaidetza errazten Euskadiko garapen politikoan, ekonomikoan eta kulturean.

EGK-k bide bide luzea du oraindik!

Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua



Consejo de
la Juventud
de Euskadi

EGKren antolakuntzak gazteena bezalako askotariko talde baten aho-tsa egituratzeko premiari erantzuten dio, eta, horregatik, batzuetan ez da erraza haren funtzionamendua ulertzea. Hainbat kultur taldek, ikasleen erakundek, aisialdi hezitzaileko federaziok, alderdi politikoen gaztedik eta sindikatuk osatutako sare handi bat da. Lantalde handi bat da, antolakuntza oso zehatz batekin, eta honela osatzen da:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren osaera eta eraketa ulertzeko, honako organo hauek bereizi behar dira:

Batzar Orokorra

Batzorde Iraunkorra

Lantalde Teknikoa

BATZAR OROKORRA

Urtean behin, Batzar Orokorra egiten da. **Kontseiluaren organo gorena da, eta EGK osatzen dute erakundeetako, federazioetako, alderdi politikoaren gaztedietako, ikasleen erakundeetako, kultur taldeetako eta abarretako ordezkari guztiek osatzen dute.**

Batzar Orokorrak bere kideen artean boto bidez hautatzen ditu presidente bat, bi presidenteorde, idazkari bat, diruzain bat eta sei batzarkide. Horiek Batzorde Iraunkorra osatzen dute, bi urterako.

EGK-ko kide bakoitzeko ordezkari batetik laura (inork ezingo ditu 30 urte baino gehiago izan) boto bat izango du (ordezkari bakoitzak bere botoa), Batzorde Iraunkorreko kideak eta Kontseiluko presidentea aukeratzeko.

Kideak hautatzeaz gain, Batzarrean Kontseiluaren ildo nagusiak ere adieraziko dira; Batzorde Iraunkorrak eta Lantalde Teknikoak aurkeztutako txostenak eztabaidatuko dira, eta hala badagokio, onartu; EGKren urteko aurrekontuak eta aurreko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa onartuko dira. Eta azkenik, Batzorde Iraunkorrak proposatutako jardueren programa eta urteko txostena onartuko dira, baita barne-araudia, Kontseiluaren beste funtzionamendu-arau batzuk eta aldaketak ere.

Batzorde Iraunkorra Batzar Orokorrean aukeratutako 11 kidek osatzen dute kide diren erakundeen artean. **Organo hori arduratzen da Batzar Orokorrearen akordioak bete- tzeaz, Kontseiluaren jarduera guztiak koordinatzeaz eta hura zu- zentzeaz Batzarra bilduta ez dagoenean.**

Batzordearen funtzioak hauek dira, besteak beste: Batzar Orokorra presta- tzea eta deitzea; Batzar Orokorri urteko txostena eta aurrekontu-proiek- tua aurkeztea; Batzar Orokorrek eskatutako txostenak egitea eta hari pro- posatzea, bere ekimenez egindakoak; eta Lantalde Teknikoa koordinatzea.

Egungo osaera honako hau da:

Presidentea: Itsaso Andueza, *Hezkide eskola.*

1. presidenteordea: Maite López de Aguilera, *Lilith – Euskadiko emakume gazteak.*

2. presidenteordea: Iratxe Larrunbide, *Bizkaiko Gaztetxoaren Koordinakundea.*

Diruzaintza: Koldo Bilbao, *Uzturre Kultur Elkarte*

Idazkaria: Mikel Ochoa de Chinchetru *JSE - Egaz*

Batzarkideak: Iker Montes (*Gazte Abertzaleak*), Ramón Motos (*Kale Dor Kayiko*), Diana Gonzalez (*Euzko Gaztedi*), Mikel Arriaga (*Iratzarri*), Mario Reyes (*Gazte kanpu- sa*), Gorka Maiztegi (*FVJE – Federación Vasca de Junior Empresa*).

Lehen bost kargu horiek izendunak dira. Pertsona horiek Batzar Orokorrean aukeratzen dira bozketa bidez. Kargudunen batek kargua utzi nahi izanez gero, kargudun berria Batzar Nagusiaren bidez aukeratu beharko da.

Presidentetzari dagokionez, kargu hautatu liberatua da, EGKren ordezkari goren gisa bere egitekoak bete ahal izan ditzan. Presidenteak bere funtzioak garatzen ditu EGKren egoitzan, eta soldata jasotzen du horregatik.


Batzar Orokorrean batzarkideak ere aukeratzen dira. Edozein erakunde kide bateko ordezkari bat hautagai gisa ateratzen da batzarkide izateko, eta bilera horretan hautatzen da zer pertsonak, eta, beraz, zer erakundek hartuko duen parte Batzorde Iraunkorrean. Kargu hori aldatu egin daiteke, hau da, Batzorde Iraunkorreko batzordekideak bere postua utzi nahi badu Batzordean, postu ho- rretarako hautagai berriaren aukeraketa bere erakundearen baitan egingo da. Ez da Batzar Orokorretik igaro beharko, eta gehienez, bi aldiz egin ahal izango da.

LANTALDE TERNIKOA

Azkenik, organo arruntak daude, eta horien bidez gauzatzen dira proiektuak ikasturtean zehar. Kontseiluak langileen talde bat dauka hiru euskal lurralde historikotan banatuta, espezifikoki Bilboko, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko egoitzetan. Gaur egun, 8 pertsonak egiten dute lan EGKrao.

Teknikari bakoitza lan-arlo baten (Administrazioa, Komunikazioa, Hezkuntza, Enplegua eta Etxebizitza, Berdintasuna, Parte-hartzea, eta Bakea eta Bizikidetzak) arduraduna da, eta jarduera zehatzak garatzen ditu. Era berean, langile guztiek sarean lan egiten dute, EGKren proiektuak ondo garatu daitezzen eta zuzen funtziona dezaten.

Hortaz, honela osatzen da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren organigrama:



Bakea eta Bizikidetzeta nahiz Berdintasuna arloek lankidetzeta-hitzarmenak dituzte Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetzeta Zuzendaritza Nagusiarekin eta Espainiako Gazteriaren Kontseiluarekin, hurrenez hurren. Arlo horiek berreskuratzeko ahaleginak egin dira urte luzez, oso garrantzitsuak direlako, baina ezin izan dira garatu kanpo-finantzazioa lortu arte. Aldiz, zeharka lantzeko ahalegina egin da.

EGK-KO LANGILEAK ETA HAIEN FUNTZIOAK

PRESIDENTEA

Izen-abizenak: **Itsaso Andueza**

Sexua: **Mujer**

Adina: **29 años**

Funtzioak: Lantalde Teknikoaren **kohesioa eta koordinazioa** bermatzen du, eta, era berean, Batzorde Iraunkorra koordinatzen du, ikasturtean zehar egin beharreko proiektuen dezibilitatea eta parte-hartzea sustatuz. Gainera, Batzorde Teknikoaren eta Lantalde Teknikoaren arteko zubi-lanak egiten ditu. Bestalde, EGKren Batzar Orokorra koordinatzen eta dinamizatzen du, jarraipen ekonomikoa gauzatzen du, eta erabakiak hartzen ditu Kontseiluari buruz. Azkenik, eragin politikoa du, informazioa trukatzeko delako EGKren mezua erakundeei, herri-administrazioei eta gizarte orokorrari helarazten zaiela bermatuz.

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO

KUDEAKETA TEKNIKARIA

Sexua: **Emakumea**

Adina: **48 urte**

Funtzioak: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren **kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa** egiten du. Horretarako, aurrekontuak egiten ditu, kontabilitatea kudeatzen du eta memoria eta justifikazio ekonomikoak idazten ditu. Gainera, administrazio-funtzio bat gauzatzen du, eta jasotako eta EGKn sortutako informazioa eta dokumentazioa izapidetzen du, lan-arloaren jarraipena eta kontrola gauzatzen du, ondasun suntsikorren mantentze-lanak eta hornidura kudeatzen ditu, datu-baseak kontrolatzen ditu eta barne-koordinazioa izapidetzen du. Azkenik, horrez gain, idazkaritzako eta giza baliabideetako lanak egiten ditu.

HEZKUNTZA TEKNIKARIA

Sexua: **Emakumea**

Adina: **25 urte**

Funtzioak: Kontseiluaren baitan, hezkuntzaren arloa kudeatzen du (formala eta ez-formala). Hezkuntza ez-formalari dagokionez, **teknikariak foro bat zuzentzen, koordinatzen, kudeatzen eta ebaluatzen du (Astialdi foroa)**, eta horren xedea da balioetan heztea bultzatzea, aisialdi hezigarriren asoziazionismoa indartzea eta gizartea eraldatzeko ekimenak bultzatzea. Aisialdiko eskolek eskaintzen duten prestakuntza-lana ere zabalitzen du, eta oro har eta elkarrekin jakinarazi nahi du Aisialdi Hezigarriaren esanahia, sare baten bidez.

Bestalde, **hezkuntza formalean talde bat koordinatzen du (Hezkuntza Foroa)**. Foro hori ikasleen kontseiluek eta erakundeek osatzen dute, eta haren bidez jakinarazten dira unibertsitateko ikasleen premiak, kezak eta proiektuak.

ENPLEGU ETA ETXEBIZITZA TEKNIKARIA

Sexua: **Emakumea**

Adina: **29 urte**

Funtzioak: Enpleguaren eta Etxebizitzaren arloko kudeaketaz arduratzen da. Teknikari honen egiteko nagusia da **Enpleguaren eta Etxebizitzaren arloan gazteen eskubideen urratzea eta prekarietate-egoera salatzea eta ikusaraztea.**

Halaber, administrazioek garatzen dituzten politika publikoak eta programa publikoak aztertzen ditu, **gazteen premiak eta interesak betetzen dituzten hobekuntza-proposamenak egiteko.** Horretarako, gogoe-tarako eta eztabaidarako espazioak sortzen ditu, eta ekimenak koordinatzen eta dinamizatzen ditu arlo horretako oinarrizko gaiei buruz (lan-prekarietatea, lan-emigrazioa, emantzipazioa...). Jarduera horien bidez, zenbait ondorio ateratzen dira, eta horiekin material bat garatzen eta eztabaidatu egiten da EGKren baitan arazo horiei buruz.

KOMUNIKAZIO TEKNIKARIA

Sexua: **Gizonezkoa**

Adina: **29 urte**

Funtzioak: EGKren baitan komunikazioaren arloa kudeatzen du. Honako lan hauek egiten ditu: **web orriko eta buletin digita-leko edukiak lantzen** ditu, eta sare sozialak eguneratzen ditu. Komunikazio-kanpainak diseinatzen, garatzen eta ebaluatzen ditu, eta EGKren lan-arloekin lotutako hainbat gairi buruzko argitalpe-nak eta berriak idazten eta argitaratzen ditu.

Halaber, **harremanak kudeatzen ditu komunikabideekin**, Kontseiluaren korporazio-euskarriak diseinatzen ditu eta bere proiektuak garatzen ditu. Azkenik, **gainerako teknikariek koordinatzen da arlo bakoitzeko proiektuak argitartzeko, sustatzeko eta zabaltzeko asmoz.**

BERDINTASUN TEKNIKARIA

Sexua: **Emakumea**

Adina: **27 urte**

Funtzioak: Berdintasunaren arloa kudeatzen du aldi baterako. Teknikariaren egitekoak dira, besteak beste, EGKn **Berdintasunaren arloa berreskuratzea eta aktibatzea**. Horretarako, berdintasun-diagnostiko bat garatzen du Kontseiluaren baitan, Berdintasun Plan baterako oinarriak ezarriko dituena. Halaber, lan egiten du **berdintasunaren eta bereizketarik ezaren ikuspegia zeharka eta zehazki txertatzeko** EGKren egunerokoan, nahiz gazteen elkarketa- eta partaidetza-ehunean. Azkenik, arlo horretarako interesgarria izan daitekeen zeinahi dinamika edo ekimenetan parte hartzen du.

PARTE-HARTZE TEKNIKARIA

Sexua: **Gizonezkoa**

Adina: **30 urte**

Funtzioak: Parte-hartzearen arloa kudeatzen du eta haren xedea da **gazteen partaidetza sustatzea**; horretarako, partaidetzatzat hartzen da Euskadiko gazteei eragiten dien eta interesatzen zaien gai publikoetan edota kolektiboetan tartean sartzea.

Helburu hori lortzeko, parte-hartzea bultzatzen du modu praktikoan jardueren, dinamiken, lantegien eta aholkularitza-lanen bidez. Horien bidez, partaidetzari buruzko ezagutzak zabaltzen ditu eta gaztediaren errealitatea eta gizarte-inplikazioa jasotzen du, horri buruzko gogoeta egiteko. Era berean, **neurketak eta ikerketak egiten ditu** aldizka, eta ondorioak eta gomendioak ateratzen ditu.

Azkenik, **lan-giro egokia bultzatzen du eta hari eusten ahalegintzen da erakunde publikoen eta EGKren artean, partaidetza-bideak hobetzeko eta gazteak hurbiltzeko** Euskadiko erakunde-maila desberdinetara.

BAKE ETA BIZIKIDETZA TEKNIKARIA

Sexua: **Emakumea**

Adina: **28 urte**

Funtzioak: Bake eta Bizikidetzaren arloa kudeatzen du. Horretarako, honako ekintza hauek egiten ditu: **iana koordinatzen du** Eusko Jaurlaritzaren eta EGKren arteko Bake eta Bizikidetzeta hitzarmenean zehaztutako **proiektuetan parte hartzen duten eragileen artean**. Erakundeekin eta gazteekin programak eta topaketak antolatzen, garatzen eta ebaluatzen ditu. Ondorioak ateratzen ditu arlo horretan antolatutako jardueretatik, eta ondoren, Bake eta Bizikidetzarako Zuzendaritza Nagusiari eta gizarte osoari jakinarazten dizkio. Azkenik, Bakeahots espazio birtualaren kudeaketa, hedapena eta ebaluazioa gauzatzen du.

Arlo bakoitzean garatu beharreko funtzioez gain, taldeak hainbat zeregin ditu, eta EGKren idiosinkrasiari erantzuten diote. Hain zuzen, honako hauek dira zeregin horiek:

****EGK-ko beste lan-arlo batzuekin **koordinatzea** helburu komunak lortzeko (korporatiboak).**

****EGKren beste lan-arlo batzuek aurkeztutako **proiektuak eta ekimenak** aztertzea eta baloratzea, eta hobekuntza proposamenak egitea.**

****Euskadiko herri-administrazioek bultzatutako gazteentzako edo **gazteekin lotutako planak, programak, proiektuak eta ekimenak** aztertzea eta baloratzea, eta hobekuntza-proposamenak egitea.**

****Banakako nahiz taldeko eragile guztiei arreta eskaintzea** eta erantzutea (gazte anonimoak, EGK-koak diren edo ez diren gazteen erakundeak, komunikabideak, askotariko erakundeak eta herri-administrazioak), EGK-ko arloetatik egiten den lanean interesa dutenei, edo EGK-k bere izaeragatik manea dezakeen eta gazteriarekin lotuta dagoen informazio espezifiko behar dutenei.

****Erakunde gisa aipatzen den **bileretan edo batzordeetan parte hartzea.****

EGK-REN BERDINTASUN ANALISIA

EMAKUME ETA GIZONEN EGOERA


EGK -REN BAITAN

EGK martxan dagoen 29 urteetan, Lantalde Teknikoa osatu duten pertsonen kopurua oso handia izan da, lan-politika berezia duelako: parte-hartzea 30 urterekin amaitzea. Horren zergatia zera da: langile-taldea biztanle gazteen egoerari eta haien premiei eta interesei buruz hitz egiten duten gazteek osatzen dute, eta Euskadiko gazteentzako ekintzak egiten ditu. Gazteek gazteentzat egindako lana da, eta, beraz, iraungitze-data duen presentzia izaten da, gaztaroaren amaieraren muga ezarriz.

Hala ere, eta gazteek osatutako erakunde bat izan arren, ikusten dugu bete beharreko gizarte- eta kultura-funtzioei, hau da, gizarteak izendatutako batzuen eta besteen egitekoei, eutsi egiten zaiela denboran zehar. Azken urteetan EGKren baitan aldaketa nabarrena ikusiko dugun arren, jasotako datu orokorrekin adierazten dute gizonen presentzia handiagoa dutela, erantzukizun-karguetan, batez ere.

ERANTZUNKIZUN-KARGUAK


Erakundeko erantzukizun handieneko postua **presidentearena** da. EGK martxan dagoen 29 urteetan, **12 pertsonak zuzendu dute guztira Kontseilua**, eta horien artean, **3 bakarrik izan dira emakumeak**.




Azpimarratu behar da emakumeak XXI. mendea hasi ondoren iritsi zirela botere-kargura. Mende berri bat da, non teoria optimistenak dioten denbora aurrera joan ahala sexu-desberdintzea, haurtzarotik egiten dena bezalakoa, murriztu egin beharko litzatekeela, bai gizonentzat, bai emakumeentzat. Aringarri horrek berarekin ekarriko luke emakumeen balio eta jokabide tradizionalak onartzea (izan ere, emakumeek gizonenak onartzen dituzte), sexu-arrazoiengatik desberdintasunik gabeko gizarte baterantz aurrera eginez.

Batzorde Iraunkorrari dagokionez, emaitzak oso adierazgarriak dira; izan ere, postu batean egon diren 180 pertsonetatik **50 izan baitira soilik emakumeak, hau da:** emakumeak % **27,7** izan dira, eta gizonak, % 72,3.

1 grafikoa: Batzorde iraunkorreko emakume ega gizonetzkoen ordezkaritza. 1986-2015 tartea.



Atzera begiratzuz gero, EGKren ekintzak zuzentzen dituen organoaren datuak ez ziren oso berdintasunezkoak. Kontseiluaren datu historikoetan sakonduz gero, alde handiak ikusiko ditugu Batzorde Iraunkorreko partaideen sexuari dagokionez:



Gaurko eta duela lau urteko datuak behatuz gero, jabetuko gara karguak deskonpentsatu egin direla sexuari dagokionez. Azken 4 urteetan, Batzorde Iraunkorra modu orekatuan osatuta egon da 34. Batzar Nagusian osatera 7 gizonekin eta 4 emakumerekin birformulatu den arte. Nolanahi ere, garrantzitsua da aipatzea emakumeek bete dituztela erantzukizuneko lehenengo postuak: presidentetza eta presidenteordeztzak. Inoiz ez zen horrelakorik gertatu.

BATZORDE IRAUNKORRA	2015		2011	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Presidentea	1			1
1. presidenteordea	1		1	
2. presidenteordea	1		1	
Diruzaina		1		1
Idazkaria		1	1	
Kideak	1	5	3	3
GUZTIRA	4	7	6	5

LANGILEAK ETA LAN-ARLOAK

Eguno eta duela 4 urteko langileei dagokionez, aldaketa gutxi ditugu, baina datu bat nagusitzen da denboran zehar: emakumeen nagusitasuna gizonetikiko.

LAN-ARLOAK	2015		2011	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Lurralde koordinazioa ⁵	-	-	1	2
Bakea eta Bizikidetzak	1		-	-
Berdintasuna	1		1	
Enplegua eta Etxebizitza ⁶	1		1	
Hezkuntza	1			1
Komunikazioa		1	1	
Parte-Hartzea		1	-	
Administrazioa	1		1	
GUZTIRA	5	2	5	3

Azken lau urteetan, zenbait aldaketa egin dira lan-arlo ezberdinetan: 2011n EGK-k lurraldeko koordinatzailea izeneko figura bat zuen. Gaur egun, kargu hori ez dago, eta horren ordez, beste lan-arlo bat gehitu zen: Parte-hartzea. Berdintasunaren arloari dagokionez, eremu hori berreskuratzean ahalegintzeko konpromisoa hartu zen. Une honetan, Espainiako Gazteriaren Kontseiluarekin egindako hitzarmen baten bidez eusten zaio, baina EGK lanean ari da bere egituraren baitan eusteko horri, Emakunderekin lankidetzaz-ildo bat sustatuz.

Taulari dagokionez, egiaztatu dezakegu emakumeek eskuratu dutela Administrazioaren arloa; EGKren historia osoan, postu hori emakumeek bete dute. Gainerako arloetan, berriz, aldaketak egon dira sexuan, lanpostu profesionalera aurkeztutako hautagaien arabera.

⁵ Lurralde koordinatzaileak gazteen erakundeekin eta gaztediarekin harremanak izateko egitekoa zuen, lurralde bakoitzean gazteen ikuspuntua txertatzeaz gain. Krisi ekonomikoa dela-eta, lanpostu hori kendu egin behar izan zen.

⁶ Duela zenbait urte, enplegua eta etxebizitza bi arlo desberdin ziren, eta Bizi Baldintza Materialerako moldatu zen, beste arlo batzuk hartzen zituenera, hala nola osasuna eta espazio publikoa.

EGK-ko langileek berezitasun bat dute: kide guztiek, batek izan ezik, administrariak, **31 urte baino gutxiago dituzte**. EGKren lantaldean sartzean, langileak jakitun dira 30 urte betetakoan kontratua amaituko zaiela. Baldintza hori langile guztiek onartzen dute hitzarmena sinatzen den unean. Gaur egun, 5 emakumek (presidentea eta teknikariak) eta bi gizonek (teknikariak) 25-30 urte artean dituzte.

EGKren politikaren salbuespena administraria da; izan ere, 48 urte ditu, eta funtsezko garrantzia duen figura da EGKren baitan, administrazio-mekanismoak ezagutzen baititu ikuspuntu historikoarekin eta horrenbeste finantzazio-iturri maneiatzea oso konplexua baita. Aurten, 25 urte beteko ditu langile-taldean.

EGKren langileen maila akademikoari dagokionez, guztiek dute **goi-mailako prestakuntza**, hau da, lizentzia, ingeniaritza edota masterra, emakume batek izan ezik, batxilergoko ikasketak amaituta dituelako.

Jarraian, EGK-ko lantaldean egindako inkestak aztertuko dira. **15 galdera dira, eta informazioa emango dute erakundeak emakumeen eta gizonen errealitateari buruz**, hobetzeko aukerak antzemateko eta enpresan berdintasunaren aldeko esku-hartze global bat diseinatzeko asmoz.

1. GALDERA:

Langileak hautatzerakoan, erakundeak emakume eta gizonen arteko berdintasun kriterioak jarraitzen dituela uste duzu?

Lehenengo galdera EGK-ko langileak hautatzeari buruzkoa da. **Langile-taldeko 7 kidek uste dute langileen hautaketa emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak baliatuz egiten dela.** Aldiz, batek soilik uste du hori ez dela horrela egiten.

Eustaten datuen arabera, 2014ko uztailaren 18ko prentsa-oharrean jasoak, okupazioaren hazkunde bat egon da, eta emakumeei eragin die batez ere; hala, 4.300 emakume landun gehiago daude aurreko hiru hilabete baino. Gizon landunak, bestalde, 2.000 gehiago izan dira. Lanpostu gehiago egon badira ere emakumeentzat, balioetsi egin beharko litzateke zer okupazio izan diren, eta zer lan-baldintza dituzten.

Jakina denez, lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko alde handietako bat soldata da. Gaindegiak⁷, 2014ko abenduan emandako datuen arabera, azken hamarkadan emakumeen eta gizonen urteko soldaten arteko arrakala handitu egin da Euskal Herrian, krisi ekonomikoaren ondorioz. 2005ean, emakumezkoek gizezkoek baino 6.417 euro gutxiago kobratu zituzten, batez beste. 2012an, aldiz, soldatan izandako aldea 7.688 eurora iritsi zen: gizenek 28.880 euro irabazi zituzten urtean batez beste; emakumeek, berriz, 21.192 euro. Hori dela-eta, emakumeek urtean 79 egun gehiago lan egin beharko lukete gizek baino soldata bera kobratzeko⁸.

Gazteei⁹ dagokienez, sexuen arteko arrakala txikiagoa da; emakumeek 1.537 euro gutxiago kobratzen dituzte urtean gizenek baino. Gazteen eta helduen arteko soldata alderatzen badugu, ordea, ikusiko dugu arrakala handitu egiten dela urteko 12.994 eurora.

Lan-arloan alde nabarmen hori egon arren, EGKn **langile-taldeak baieztatzen du erakundeko ordainsaria berdintasun-irizpideekin egiten dela**; izan ere, EGKren baitan, langile guztiek kategoria bera dute eta oinarritzko soldata berdina da guztientzat, sexuagatik alderik egon gabe. Alde bakarrak antzinasunean (hiru urtean behin oinarritzko soldataren % 5 kobratzen da) eta presidentetzaren erantzukizunaren plusean dago (oinarritzko soldataren % 7 kobratzen da, funtzioak betez gero).

Galdetegiarekin jarraituz, hurrengo galdera langileen kontratu-motari buruzkoa da. **7 langilek erantzun dute aldi baterako kontratua dutela, eta langile-taldeko pertsona batek soilik erantzun du kontratu mugagabea duela** jardunaldi osoan.



2. GALDERA:

Entitateak langileen ordainsaria berdintasun irizpideen arabera ezartzen duela uste duzu?

3. GALDERA:

Zein kontratu mota duzu?

EGKren enplegu-politika nahiko berezia da, arestian azaldu bezala; langileak gazteak bakarrik diren lan-espazio bat da. Hortaz, lan-hitzarmena sinatzen den unean jakiten da 30 urte betetakoan amaituko dela kontratua. Administrazioari langilea da salbuespena, kontratu mugagabea baitu.

2014ko Euskadiko datuei dagokionez, emakume gehiagok aurkitzen dute lana gizonetako baino krisi-garaian. Nolanahi ere, lan-kontratuak prekarioagoak dira gaur egun: kontratuen % 90 aldi baterakoak dira.

Kontratu mugagabea duten soldatapeko langileak 8.800 gutxiago izan dira (524.100 guztira), eta 12.300 gehiago aldi baterako kontratua dutenak edo kontraturik ez dutenak (176.500 guztira)¹⁰.

4 GALDERA:

Laneko sarrera eta irteera ordutegiak malguak direla uste duzu?

Lanera sartzeko eta handik irteteko denboraren malgutasunari dagokionez, **langile guztiak bat datoz EGK-k ordutegi malgua duela esatean**. Enpresa-ituraren arabera, langileak 30 minutuko malgutasuna du gehienez bere lanpostuan egoteko, eta nahitaezkoa da denbora hori lanegun berean kontentsatzea.

⁷ GAINDEGIA (2014). Emakumeek kontratu gehiago, baina prekaritate handiagoa ere bai. Gaindegia, abenduak 12. Hemen eskura daiteke: <http://www.gaindegia.eus/es/azpimarra-etb-mercado-laboral-mujer>

⁸ EFE (2015). Emakumeek 79 egun gehiago lan egin behar dituzte urtean gizonen adina ko-bratzeko. Deia, otsailak 17. Hemen eskura daiteke: www.deia.com

⁹ ESPAINIAKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (2014). Emantzipazio Behatokia: Euskadi. Hemen eskura daiteke: <http://www.cje.org/descargas/cje5595.pdf>

¹⁰ LA INFORMACIÓN (2014) uztailak 18. Hemen eskura daiteke: www.Lainformacion.com

Bestalde, lan-ordutegiaz kanpo lan egiten denean, aparteko orduak inoiz ez dira ekonomikoki konpentsatuko, baina honela berreskuratuko dira:

a// Lan-ordutegitik kanpo lan eginez gero, hau da, ostiral arratsalde batean, larunbatean edo igandean, lan egindako ordu bakoitzeko ordu eta erdi izango da libre.

b// Astelehenetik ostegunera laneko ordutegitik kanpo lan eginez gero, ordu libre batekin konpentsatuko da.

5. GALDERA:

Zure ekimen sozialak edo zaletasun pertsonalak lanarekin bateragarri egiteko zailtasunak al dituzu?

6. GALDERA:

Zaintza lanak edo familiarekiko betebeharrak eta lana bateragarri egiteko zailtasunak al dituzu?

Lanean sartzeko eta handik irteteko malgutasunarekin gogobeteta egon arren, **egungo lanpostua aukera sozialekin eta norberaren zaletasunekin uztartzeko zailtasunari** buruz galdetzean, **4 pertsonak erantzun dute eragozpenak dituztela** lana eta bizitza pertsonala uztartzeko. Hiru pertsonak erantzun dute ezetz, eta pertsona batek erantzuteari uko egin dio.

Uztartzeari buruzko galderekin jarraituz, familia-erantzukizunei buruz galdetu da. **6 pertsonak erantzun dute ez dutela zailtasunik egungo enplegua eta familia-erantzukizunak uztartzeko**, beste batek baietz erantzun du, eta beste pertsona batek ez du ezer esan horri buruz. Datu horien arrazoia zera da: langile gehienek ez dute etengabeko arreta behar duen familia-erantzukizunik.

7. GALDERA:

Ba al dakizu EGK-k familia konziliaziorako baimenak edo lan utzaldiak errazten dituen?

EGKn familia uztartzeko baimenak edo eszedentziak ematen diren galdetutakoan, denek erantzun dute baimen horiek ezagutzen dituztela.

EGKn enpresa-akordioen irakurketa bat egin ondoren jakin da erakunde horretako langileek izan ditzaketen baimenak zein diren. Kasu honetan, amatasuneko-aitatasuneko eta zaintzako baimenetan jarriko dugu arreta berezia:

1// AMATASUNA-AITATASUNA

Seme-alaba bat jaiotzean, langileak 5 jaiegun ditu, jarraian edo ez jarraian, baina jaiotzen denetik 15 eguneko epean hartu behar dira.

Erditzearen kasuan, etenik gabeko 20 asteko lizentzia izango da. Askotariko erditzea izanez gero, 22 astekoa izango da. Gainera, amak **6 asteko atsedena hartu beharko du erditu** ondoren. Ama hilez gero, 6 aste horiek aitak hartu ahal izango ditu.

Edoskitzean, haurraren lehen 10 hilabeteetan atsedean hartzeko ordubete izango da. Gainera, laneko jardunaldia ordubete murrizteko aukera izango du etenaldi hori egin ordez.

10 urte baino gutxiagoko haurrak adoptatuz eta hartuz gero, 20 asteko baimena ere badago, eta askotarikoa izanez gero, haur bakoitzeko bi asteko atsedena izango da. 10 urte baino gehiagokoak izanez gero, lan-atsedeneko 20 asteko lizentzia haurra minusbaliatua izateagatik, egoera eta esperientzia pertsonalagatik, atzerritarra izateagatik eta familian txertatzeko zailtasunengatik soilik hartu ahal izango dira.

2// ZAINITZA

Azkenik, zaintzari dagokionez, 10 urteko haur baten edo dibertsitate funtzionala duen pertsona baten kargu izanez gero, langileak bere lan-jardunaldia murriztu ahal izango du heren bat gutxienez, eta jardunaldi erdia gehienez. Era berean, ezkontza edo odol bidezko ahaidetasunen kasuetan eta gaixotasunagatik, istri-puagatik edo adinagatik, ezin baldin bada haren kargu egin, eskubide berberak izango dira.

Halaber, 5 egun libre izango dira bigarren mailara arteko ahaidetasuneko familiako bat ospitaleratzean, eta 5 lanegun izango dira, jarraian edo ez-jarraian, baina ospitaleratzearen 15 eguneko epearen baitan egon behar dute. Gainera, baimenak eskatu daitezke kontsulta medikoengatik, tratamenduengatik edo beste zeinahi mediku-azterketarengatik.

Inkestarekin jarraituz, hurrengo galderan zera galdetzen da: ea edozein pertsonak, haren arraza, sexu-egoera, edo ezgaitasuna **edozein delarik ere, lor dezakeen lanpostu bat EGKn**; galdetutako **6 pertsonak baietz erantzun dute**, eta bik ezetz.

8. GALDERA:

Zure ustez, edozein pertsonak du EGK-n lan egiteko aukera, bere arraza, aukera sexuala edo gaitasun / ez-gaitazunak direnak direla ere?

9. GALDERA:

Zure sexua dela eta, EGK-n inoiz sentitu al zara diskriminatua?

EGK-ko langileak lanpostuan **inoiz diskriminatuta sentitu diren ala ez** galderari dagokionez, **guztiak bat etorri dira: ez**.

EGKren baitan datu oso positibo hori izan arren, kanpoan errealitatea kezka-garria da. Diskriminazioa dago sexuagatik, adinagatik, arrazagatik, sexu-aniztasunagatik... eta horri dagokionez, aldeak daude, baita ere, soldatan, kontratu-eta jardunaldi-motan, lanpostuan eta lan-karguan, garapen-aukeretan, aitorpen profesionalen eta beste hainbat alderditan.

Diskriminazioen aurkako legeak badauden arren, Euskadin ez da errespetatzen desberdintasuna bere osotasunean, eta gaur egun, diskriminazio-kasuak badi-ra. Gainera, horrelako ezaugarriak dituzten ekintzengatik kaltetutako pertsona gehienek ez dute nahi edo ez dira ausartzen, hainbat arrazoirengatik, egoera horiek salatzen. Ondorioz, salatutako delitu arrazisten, bereizketa-kasuen edo sexu-jazarpenen¹¹ zenbatekoak benetakoak baino askoz ere baxuagoak dira.

10. GALDERA:

Genero ikuspegia kontutan hartzen duen lan osasun planik badagoen al dakizu?

Genero-ikuspegia kontutan hartzen duen laneko arriskuen plan bat ba ote dagoen ezagutzen duten galderari erantzunez, pertsona batek baietz erantzun du, **bost pertsonak ezetz**, eta bik ez dakitela eta ez dutela erantzuten.

Gero-ikuspegia duen laneko arriskuen plan batez ari garenean, esan nahi dugu prebentzioko eta arrisku-egoera baten aurrean jarduteko neurri guztiek bi sexuak barne hartzen dituztela. Lanpostu asko oso maskulinizatuta daude, eta soilik gizonen gaitzak hartzen dira kontuan. Hala ere, lanpostuetan emakumeak txertatzean, garrantzitsua da emakumeetan gara daitezkeen beste gaitz fisiko mota batzuk ere baitan hartzea.

¹¹ «Laneko sexu-jazarpenetat hartzen da nahi ez duen pertsona batekin eta horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki gauzatzen den edozein jokabide, baldin eta jokabide horren helburua edo ondorioa bada haren duintasunaren kontra egitea eta larderiazko giroa, etsaitasunezkoa, laidogarria, umiliagarria edo iraingarria sortzea» BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA (2013). Sexu-jazarpeneko eta jazarpen sexistako egoerei aurrea hartzea eta arreta eskaintzea hirugarren sektoreko erakundeetan. Hemen eskura daiteke: http://www.3sbizkaia.org/Archivos/Documentos/Enlaces/1452_OTS_abuztua_2013.pdf

11. GALDERA:

EGK-n erantzukidetasuneko eta berdintasuneko sentsibilizazio-ekintzak egiten al dira?

12. GALDERA:

EGK-ko kanpoko eta barneko komunikazioan hizkuntza ez-sexisten eta irudi ez-sexisten erabilpena errespetatzen al da?

13. GALDERA:

EGK-ko pertsona baten aldetik sexu-jazarpen edo indarkeriarik jasan duzu inoiz?

14. GALDERA:

EGK-ko kideren baten eskutik sexu-jazarpenik pairatu duen inoren kasua ezagutzen al duzu?

EGKn berdintasuneko eta erantzukidetasuneko sentsibilizazio-ekintzak egiten ote diren galdera ere egin zen, hau da, familiako, laneko, gizarteko eta norberaren bizitzaren arloetan emakumeen eta gizonen arteko aldeak kentzen ahalegintzen diren ekintzak. Galdera horri dagokionez, bi pertsonak erantzun dute baietz, **bost pertsonak ezetz**, eta bat abstenitu egin da.

Aldiz, **EGK-k kanpoko eta barneko komunikazioa hizkuntza ez-sexista errespetatuz eta irudi ez-sexistak erabiliz egiten ote duen** galdetutakoan, langile guztiek baietz erantzun dute. EGK-ko langileek ez dute ezagutza handirik hizkuntza ez-sexistaren arloan edo genero-berdintasunarekin lotutako edozein gairen arloan; hala ere, inklusibotasuna eta pertsona guztienganako errespetua arretaz zaintzen du.

Galdetegia amaitzeko, **langile guztiek bermatzen dute inoiz ez dutela jasan sexu-jazarpenik EGK-ko pertsonen eskutik, eta ez dutela hori jasan duen inor ezagutzen.**

Sexu-jazarpenarekin zera esan nahi da: «pertsona baten duintasuna iraintzea asmo edo ondorio duen izaera sexualeko portaera berbal nahiz fisiko oro, bereziki testuingurua beldurgarria, iraingarria edo umilgarria bada»¹².

¹² Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkorra izateko 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. 7.1. artikulua

LABURBILDUZ...

EGK-ko langileei egindako inkestan jasotako datuak dira horiek, eta horietatik honako ondorio eta proposamen hauek atera ditugu:

** EGK-ko langileek berdintasunaren arloan prestakuntzarik ez duten arren, **errespetuz eta arretaz lan egiten dute ekintzetan eta proiektuetan**. Gogoeta hori egon arren, ez da nahikoa berdintasun-irizpideak ondo baliatzeko.

** EGKn lanpostua lortzeari dagokionez, langile-taldeko 7 pertsonak uste dute langileen hautaketa emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak baliatuz egiten dela. Arrazari, sexu-egoerari edo ezgaitasunei dagokienez, sei langilek uste dute egoera hori gorabehera lanpostu bat lor daitekeela EGKn. Hortaz, **uste da sexuari dagokionez erraztasun handiagoa dagoela lanpostu bat eskuratzeko arrazarekin, sexu-egoerarekin eta dibertsitate funtzionalarekin alderatuz gero**.

** **Lan-baldintzei dagokienez**, denak ados daude laneko ordutegia malgua izatearekin eta ordainsariarekin, eta **nabarmendu dute lan-taldean ez dagoela alderik**.

** Enplegu-egoerekin jarraituz, lau pertsonak adierazi dute zailtasunak dituztela lana eta bizitza soziala uztartzeko, eta batek bakarrik esan du zailtasunak dituela enplegua eta familiako bizitza uztartzeko. Datuek erakusten dute **EGK-ko lanak zama bat duela eta aparteko denbora eskatzen duela taldeko kideen eskutik**; hortaz, zaildu egin dezake jarduera egitea laneko ordutegitik kanpo, nahiz atsedendenboraz gozatzea.

** **Langile guztiek dakite EGKn baimenak ematen direla familiako bizitza uztartzeko** edo eszedentziak ematen direla; gainera, puntuz puntu jasota daude enpresako akordioan..

** Berdintasun-ikuspegiarekin ekintzak egiten diren eta EGKren baitan berdintasun-irizpideak lantzen diren galdetutakoan, langile gehienek erantzun dute ez dakitela horiek egiten diren ala ez. Puntu oso garrantzitsua da hori; izan ere, interesgarria da beturreko moreak txertatzea, lan-taldeak egindako jarduera eta ekintza guztiei ikuspegi berri bat emateko. Horretarako, EGK-ko **langileen-tzako arlo horretako prestakuntza izatea komeni da**. Langileek ondo onartzen duten moduan, **berdintasuna zeharka txertatzeko ahalegina egin da; hori ez da nahikoa, ordea, EGKren izateko modurako**.

** Gainera, uste da **egokia dela salaketa-protokolo bat sortzea emakumeen aurkako indarkeria- eta bereizketa-egoerentarako, nahiz LGTB taldearen aurkakoentarako**.

** EGKn emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan gogobetetze-maila 8,125 puntukoa izan arren batez beste, **langile guztiek uste dute EGKn emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan bat abian jarri behar dela**, eta EGK-k bere mezua helarazi behar duela berdintasunaren arloan.

** Halaber, **Lantalde Teknikoak uste du lan-arlo iraunkor bat sortu behar dela genero-berdintasunarekin eta LGTB taldearekin lotutako gaiak lantzeko**, gainerako lan-arloetan ikuspegi hori zeharka txertatzen laguntzeko.

KANPO-

ANALISIA

ESPARRU TEORIKOA

-EMAKUMEA ETA GENEROA

-ANIZTASUN SEXU-AFEKTIBOA

METODOLOGIA

-BERDINTASUNAREN PERTZEPTIOA

-ANIZTASUNAREN PERTZEPTIOA

ONDORIOAK

Esan daiteke legezko berdintasuna lortu dela, baina ez benetako berdintasuna. Bereizketa duela zenbait hamarkada baino sotilagoa da, eta hark autokontzeptuari eta pertsona bakoitzaren lorpen-itxaropenei eragiten dien ondorioek pertsona bakoitzaren garapen pertsonalean eragina dute¹³. Gizartearen antolakuntza-sistema patriarkalak kide bakoitzari bete beharreko egiteko bat ezartzen die, sexuaren arabera betetzeko rol bat. Emakume edo gizon batentzat egokitzat hartzen diren gaitasunak, egitekoak eta funtzioak dira, sexu biologiko maskulinoak eskubideak eta boterea ditu munduaren eta gizartearen antolakuntzari buruz erabakiak hartzeko, eta emakumeak mendeko egoera batean baztertzeko dira; hain zuzen, horrek eragiten du gizonen eta emakumeen sexu-desberdintasuna gizarte-desberdinkeria bihurtzea.

Atzera begiratu eta emakumeek historian izan duten egoera aztertzean, ez direla agertzen ikusten da, rol ikusezina eta ezkutua izan dutela soilik, eta haien ahotza ez zela ez balioesten, ez entzuten. Ikusezintasun hori hainbat gauzatarako eskubiderik ez izatean itzultzen zen, hala nola: botoa emateko, unibertsitatera joateko, senarraren edo gizon baten baimenik gabe lana eskatzeko, mailegu bat eskatzeko, norbere buruaren aldeko lekukotasuna emateko, jabetzak izateko, dibortziateko... Debekuen zerrenda luze hori gero eta gogorragoa da denbora atzerago egin ahala.

Egoera horri aurre egiteko, emakume batzuk agerrarazi egin ziren eta amorrua pilatu zuten beren bizitzaren agintea hartzeko eta bizitzera behartzen zuen zapalkuntza-egoera ukatzeko. Besteak beste, **Christine de Pizan**¹⁴ urterekin ezkontzera behartu zuten, eta handik gutxira alargun geratu zen; profesionalki idazten hasi zen bizimodua ateratzeko. Garaiko idazleen testu misoginoetan inspiratu zen, eta *Damen hiria* izeneko lanarekin gozarazten digu; lan horretan gogoeta egiten du emakumeen bizitza eta historia izango litzatekeen moduari buruz gizonen menpean egongo ez balira. Pizan hartzen da idazketa formalean aritu zen lehenengo emakume gisa.

Frantziako Iraultzan, aldarrikapenen eta borroken garai berri bat ireki zen, non gizonak eta emakumeek oinarrizko eskubideak lortzeko borroka egin baitzuten. Garai horretan, **Olympia de Gouges**-en figura agertu zen. Emakume horrek **Emakumeen eta emakumezko herritarren eskubideen adierazpena** idatzi zuen, emakumeak ere lortzen ari ziren eskubideak merezi zituztela aldarrikatzeko eta aitortzeko. Lan hori kontuan hartua izateaz gain, egileak biziaz ordaindu behar izan zuen.

Ibilbide historikoarekin jarraituz, 1791n **Mary Wollstonecraft** egilearen **Emakumeen eskubideen aldarrikapena** argitaratu zen Ingalaterran. Emakumeen mendetasun naturala eta haiek gizonak zuten gutxiagotasun-egoera defendatzen zuten postulatu teorikoei erantzuteko sortu zen lan hori. Egileak estatuari eskatu zion hura izan behar zela organoa legeekin erregulatzeko eta bermatzeko emakumeen mendekotasunaren amaiera eta bi sexuatarako berdintasunezko hezkuntza, zeinarekin pertsonak beren gaitasun eta ahal guztiak gara ditzaketen berdintasunean.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, mugimendu feministak bazegoen bere horretan, eta emakume iraultzaile berriak sortu ziren, esaterako: **Flora Tristán**, **Alexandra Kollontai** edo **Clara Zetkin**. Azken hori funtsezkoa izan zen Alemaniako borroka sozialistan, eta *Emakumeen Nazioarteko Egunaren*, martxoaren 8aren, bultzatzailea izan zen; egun hori Emakume Sozialisten Nazioarteko lehen Konferentzian sustatu zen.

Estatu-mailan, mugimendu sufragista (lehenengo Olatu Feminista) **Clara Campoamor** izan zen protagonista, eta Bigarren Errepublikan garatu zen. Konstituzio errepublikano bat sortzea bultzatu zuen, emakumeentzako eta gizonentzako berdintasunezko eta bidezko tratua bermatzeko.

Aurrerapenak lortzeko eta berdintasuneranzko bidean aurrera egiteko gizarte-aldaketa sortzeko borrokan aritu ziren emakume horiei eta anonimoki borrokan aritu ziren beste askori esker, gaur egun baditugu arestian ukatutako eskubideak, eta norberak erabakitzeko askatasuna du. Gainera, borroka feministarekin errealitateranzko leiho bat ireki zen, eta izena jarri zitzaion gizarte patriarkalak ezkututzen zuen guztiari.

¹³ DOSAL, Pilar (2002). Berdintasuna sortu espazio publikoan, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

¹⁴ FERRER, Sandra (2010). Emakumeak historian. Hemen eskura daiteke: <http://www.muje-resenlahistoria.com/2010/12/la-primera-escritora-christine-de-pizan.html>

Esparru horretan agertu zen generoaren kontzeptua errealitatearen kategoria analitiko gisa, non emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasun biologikoak (sexua deiturikoa) eta gizarte- eta kultura-desberdintasunak (generoa deiturikoa) bereizten baitziren. Generoaren kontzeptu horrek «lagundu egiten digu hobeto ulertzen gauza bat dela sexu batekin jaiotzea eta beste bat dela patu ezarri eta desberdin bat izatea gizona edo emakumea izatearen arabera» (Equipo Maíz, 2000)¹⁵.

Aurretik sartu zuen emakumeetan alderdi soziokulturalaren eta biologikoaren arteko alde hori **Simone de Beauvoir** filosofo handiak **Bigarren sexua** (1949) lanean, eta hala islatu zuen baieztapen ospetsu honetan: «Ez gara emakume jaiotzen; emakume izaten ikasi egiten da». Horrekin «biologiaren patua» hausten ahaleginduko zen, emakumeen eta gizonen arteko harremanak eraikuntza kultural gisa interpretatzean .

Sexu batekoa edo bestekoa izateak desberdintasun sozial eta kultural batzuetakoa izatea zehaztu du, eta emakumeak eta gizonak espazio desberdinetan kokatu ditu. Lekuen izendapen horiek biztanleen generoaren arabera banatzen dituen gizarte-diskurtsoak ezartzen ditu. Espazio publikoa gizonak kudeatuko dute funtsean; aldez, etxeko espazioan emakumea izango da arduradun nagusia¹⁷.

Gaur egun, gizonak etxeko jardueran gero eta gehiago aritzen dira. Gizarteak eta harremanak izateko moduak azkar aldatzen ari dira, eta, beraz, etxeko erantzukizunen eta mendekoen edo kargupean dauden pertsonen zaintzaren banaketa ez zen atzean geratuko . Nolanahi ere, desberdintasun formal zaharrak egiturazko desberdintasunek ordezkatu dituzte, nekez antzeman daitezkeenak, eta, hala ere, oso eraginkorrak direnak; hain justu, bereizketek jarraitzea ahalbidetzen dute berdintasunaren itxurapean . Hori honako honetan islatzen da:

Azken hamarkadetan emakumeak unibertsitate-sisteman txertatu ziren arren, lan-merkatuan duten txertaketa ez da proportzio berdinetan ematen. Tituludunen **lan-ingurunean behatutako desberdintasuna azaltzen duten teoria feministek bermatzen dute lan-merkatuan emakumeek jasaten duten desabantaila gizarteak ematen dien mendeko koka-penaren isla leiala dela**²⁰.

Gainera, lanaldi partzialeko lanak, hein handian emakumeek beteak, aukera ematen die enplegua beste betebeharrak batzuekin uztartzeko, eta, beraz, eskuarki, emakumeentzako lan-aukera egokientzat aurkezten da, sozialki izendatzen zaien zaintzaileen rol tradizionala aintzat hartuta, oraindik ere patriarkala den egitura batean haien eta soilik haiena izango balitz bezala.

Halaber, gizonek emakumeek baino aitopen eta ospe profesional handiagoa izaten jarraitzen dute, eta hori lotuta dago emakumeen lan-jardueran lortutako emaitzei eta lan-ahaleginari buruz egiten den gutxiespen orokorrarekin. Langile gisa, emakumeak ehuneko hogeiei gehiago balio behar du ehuneko hogeiei gutxiago irabazteko²¹.

Hori dela-eta, **garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria zabalagoa dela eta bizitzaren arlo guztien ematen dela adieraztea**: indarkeria da gizonek baino gutxiago irabaztea lan berberetatik, indarkeria da etxeko lanak emakumeengan uztea, indarkeria da lanpostuak eskuratzeko ezintasuna, indarkeria da emakumeenganako kontrola, indarkeria da emakumeak pertsona gisa hutseratzea, indarkeria da emakumeak erasotzea...

Horregatik, **berdintasunaren aldeko borroka ibilbide luzeko gatazka da**, non emakume asko ausartak izan baitiren eta beren eskubideak defendatu baitituzten gureak hobetzea eraginez. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi berdintasuna emakumeei soilik dagokienik, gizonak berdintzeko; aldiz, gizarte antolaketa berri bat dakar berarekin, eta bi sexuen bizitza-aldaketa bat ahalbidetzen eta errazten du²².

¹⁵ ANTOLÍN VILLOTA, Luisa (2004). Aukera-berdintasunerako agenteak, Madril: FOREM

¹⁶ MEGÍAS QUIRÓS, Ignacio eta BALLESTEROS GUERRA, Juan Carlos (2014). *Jóvenes y género, el estado de la cuestión*, Madril: Reina Sofía Zentroa Nerabezaroari eta Gaztediari buruz.

¹⁷ MURILLO, Soledad (1996). *El mito de la vida privada. de la entrega al tiempo propio*, Madril: Siglo Veintiuno.

¹⁸ SETIÉN, Maria Luisa eta SILVESTRE, Maria (2003:187). *Problemas de las mujeres, problemas de la sociedad*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

¹⁹ AGUINAGA ROUSTAN, Josune (2008). *Mujeres jóvenes del siglo XXI*, Madril: Gaztediaren Institutua.

²⁰ Ibid.

²¹ FDEZ VILLANUEVA, C; DGUZ BILBAO, R; REVILLA CASTRI, J.C; ANAGNOSTOU, A; SANCHO HDEZ, M (2004). *La igualdad de Oportunidades. Los discursos de las mujeres sobre avances, obstáculos y resistencias*, Bartzelona: Icaria

²² AMARÓS, Celia eta VILLOTA, Paloma de (2004). *Globalización y desigualdad de género*, Madril: SíntesisMadril: Síntesis

Euskal Autonomia Erkidegoan 2.172.877²³ pertsona bizi dira guztira. Horiek guztiak desberdinak dira, bestelako gustuak dituzte, eta sentimendu ezberdinak. Gizarte-aniztasun horretan informazio partziala edo nahita ezkututzen dutenen zenbait barietate daude, eta ebo-luzionatzea eragozten dute. Termino lauso horien artean dago sexualitatea.

Egia esan, Euskadin pertsonak beste nortasuna adierazteko modu daude gaur egun. Gure sexua ezaugarri biologiko bat dela ulertuta, gizon edo emakume izateko modu asko eta askotarikoak daude. Batzuetan, genero-identitatea bat etor daiteke edo ez jaiotzaz dugun sexu biologikoarekin, eta, beraz, zenbait pertsonak hormona-tratamenduak hartzea erabakitzen dute, eta zenbait kirurgia egitera ere iristen da. Era berean, zenbait pertsona trabestitu egin dira edo ez dira genero zehatz batekoak sentitzen.

Nolanahi ere, gure genero-identitatetik harago, eta arlo emozionalera hurbilduz, gure sexu-orientazioa dago. Kasu honetan, arreta jarriko dugu gustatzen zaigunean, erakartzen gaituen moduan eta harreman sentimental edota sexual bat izango genukeenengan. Desira edo maitemintzea sentitu daiteke sexu bereko pertsonengan, edo, aitzitik, beste sexu biologikoko pertsonengan. Era berean, erakarpina edo maitasuna senti daiteke bi sexueterako pertsonengan.

Aniztasun horretan guztian ez dago erokeriarik, ezta asaldura edo gaixotasunik ere. Ez da kutsatzen, aukeratzen edo ikasten; sentitu egiten da, eta IZAN.

Zoritzarrez, bereizketa egiten bai ikasten da. Oraindik ere badago emakumeak, gizonak eta heterosexualak modu naturalean jaiotzen garelako ustea. Eredu horren ezaugarriak dira sexista, heteronormatiboa²⁴ eta binarista izatea, eta arauzkoak ez diren jokabideekin pertsonen bazterketa bultzatzea²⁵. Heteronormatibotasun horrek dio LGTB pertsonak existitzeagatik bakarrik arriskua direla patriarkatuaren iraunkortasunerako. Eta horregatik, eraso, baztertu eta berezitu egin behar direla, nagusitasun-modu horrentzako arriskua izateari uzteko²⁶. Hori esan ondoren, **beharrezkoa da ezarritako pentsamoldea desmuntatzeko eta bereizketa historikoekin eta egiturazkoekin amaitzeko ikuspegi bat txertatzea, talde hori askatasunean bizi dadin.**

Egoera horren aurrean, Euskadiko LGTB taldeak bere eskubideen alde borrokan dihardu 1976.-1978. urteez geroztik, eta hainbat zailtasun topatu arren, zenbait oztopo gainditu dituzte, eta hainbat eskubide lortu dituzte, hala nola: **13/2005 Legea, sexu bereko bi pertsona ezkontzea ahalbidetzen duena; 14/2006 Legea, Lagunduriko Ugalketarena**, emakumeen ezkontzei haurrak zuzenean erregistroan inskribatzea ahalbidetzen duena, ama ez-biologikoak adoptatzeko prozesu judizial bat egin beharrik gabe, bi emakumeak legezko amak izanez; **3/2007 Legea, sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketa erregulatzen duena**, hau da, sexuaren aipamena eta izena aldatzea ahalbidetzen duena; eta azkenik, besteak beste, 14/2012 Legea, genero-identitategatik bereizketarik ez egiteari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Horrekin guztiarekin, pertsona horietako bakoitzaren premiak eta borroka bereizteko, sexu- eta afektibitate-aniztasunari buruzko deskribapen garatuago bat egingo da. Hasteko, LGTB taldea landuko da, oro har. LGTB siglak lesbianak, gayak, bisexualak eta transexualak izendatzen ditu elkarrekin. Inklusioko ikur positibo bat izan da, eta denboraren poderioz, komunitate globalean sexualki baztertutako banakoak txertatzen lagundu du.

²³ EUSTAT (2014). *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, lurralde-eremuen eta jaiolekua-
ren arabera, 2014*. Hemen eskura daiteke: www.eustat.es

²⁴ Emakume eta gizonetzkoen arteko banaketa derrigorrezko eta baztertzailera, aurretik ezarritako jarreraren eta derrigorrezko heterosexualitatearen arabera.

²⁵ MUJICA FLORES, Inmaculada; OLAORTUA GONZÁLEZ, Elena; ORTIZ ATIENZA, Josune y VILLAR SÁENZ, Amparo (2013). *Lesbianas con recursos: Una mirada sobre el acceso y el uso de los recursos sociales en la CEA por parte de las mujeres lesbianas*. Bilbao: Aldarte

²⁶ ADRIÁN HERNÁNDEZ, Tamara (2014). *Nacer en un mundo equivocado*, Donostia: Nº 89 Gehitu Magazine

Talde berean egon arren, horietako bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta horien egoerak argiago ulertu ahal izateko, sexu-orientazioko eta genero-identitateko terminoak bereizi behar dira, baita talde bakoitzaren berezitasunak ere.

Sexu-orientazioaz aritzean, pertsona batzuek beste pertsonetikiko duten afektibitate- eta sexu-erakargarritasuna aipatu nahi da. Sexu-orientazioa sentimendu sakon eta funtsezko gisa adierazten da, eta ezarri ondoren, modu egonkorrean mantentzen da bizitzan zehar.

Arrunki, hiru sexu-orientazio²⁷ ezagutzen dira:

****Sexu-orientazio homosexuala:** erakarpena, desira, maitemintzea sentitzen da... sexu bereko pertsonengan.

****Sexu-orientazio heterosexuala:** erakarpena, desira, maitemintzea sentitzen da... beste sexuko pertsonengan.

****Sexu-orientazio bisexuala:** erakarpena, desira, maitemintzea sentitzen da... bi sexu-etako pertsonengan.

Sexualitatea errealitate dinamikoa eta ez-eskematizagarria den arren, azpimarratu behar da sexu-orientazioa eraikitzekeo prozesua oso antzekoa dela pertsona homosexualetan eta heterosexualetan; hala ere, ez da horrelakoa onarpen-prozesuan. Pertsona batek erakarpen homosexuala sumatzen hasten denean, ezkutatzeko joera izaten du, mespretxua eta bereizketa jasateko beldurratik. Oro har, gizarteak eta inguruak espero du heterosexuala izatea, eta, beraz, korrontearen aurka maite izatea²⁸, modu ez-konbentzionalen eta ezarritako gidoiari ez jarraituz, barne-gatazka bat da LGTB gazteentzat.

Bestalde, askotan nahasi egiten da homosexualitatea eta transexualitatea; bi errealitate dira eta bereizten ikasi behar da: homosexualitatea transexualitatek bereizten da pertsona homosexuala ez delako beste sexu biologikokoa sentitzen; ildo horretan, lesbiana bat emakume gisa antzematean da, eta gay bat gizon gisa. Bestalde, pertsona transexual batek ez du zertan izan heterosexuala; gay edo lesbiana izan daiteke, eta genitalen berresleipena egiteko operazio bat egiteak ez dio aldatuko sexu-orientazioa.

Horregatik, funtsezkoa da sexu biologikoaren, sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen arteko aldeak argi edukitzea. Lehenengoaz hitz egiten dugunean, sexu maskulinoa eta femeninoa zehazten dituzten atributu fisiologikoengatik ari gara. Sexu-orientazioari dagokionez, arestian aipatu bezala, pertsona batek beste batekiko sentitzen duen erakarpen emozionalean, intelektualean, fisikoan eta sexualean datza. Azkenik, genero-identitatea pertsona batek bere sexu biologikoarekin duen barne-identifikazioa edo identifikazio-gabeziaren sentipena da. Hor kokatzen da transexualitatea²⁹.

Transexualitatea zera da: pertsona baten sexu biologikoa psikologikoarekin bat ez datorrenean, hau da, pertsona hori identifikatzen denarekin. Norbanako bakoitzaren sexu fisikoaren eta sentitutako eta antzemandako generoaren arteko bat ez etortzea da. Transexualitate maskulinoaz hitz egiten da sexu fisiko femeninoa izatean norberak antzemandako generoa gizonena denean; transexualitate femeninoaz hitz egiten da alderantziz gertatzen denean, hots, sexu fisiko maskulinoa izatean eta emakume antzemandean eta sentitzean³⁰.

Ez da buruko desoreka bat, ezta akats edo ezgaitasun bat ere; transexualitatea Espainiako hamar mila biztanleko kasu batean gertatzen den fenomeno da³¹. Transexualitatea aldatzeko edo sendatzeko ahalegin oro porrota izango da, eta ahalegin horiek jasaten dituen pertsonaren mina eta desengainua areagotuko ditu.

Hortaz, **ez da ahalegindu behar pertsona horiek aldatzen, ezta LGBT taldeko beste edozein ere**. Horienganako gorroto krimenak amaitzeko borrokatu behar da, etorkizunean lortu nahi denari begiratuta. Askotan, arazo larrienak konpontzen dira lortu nahi den horri begiratu gabe, eta azkenean, aplikatzen den irtenbidea, aldi berean, desberdintasuna sortzen duen ereduaren erreprodukzioa da. Hori dela-eta, garrantzitsuak dira utopiak, nahiz eta etorkizun, itsasargi eta egungo gure gizartean proiektu txikiak eraikitzeko gida gisa soilik balio duten³².

²⁷ MUJIKA FLORES, Inmaculada y URETA BASAÑEZ, Ana (2007). *Orientación sexual: guía para jóvenes*, Bilbao: Aldarte

²⁸ VILLAR SÁENZ, Amparo (2001). *Querer a contracorriente*, Bilbao: Andra

²⁹ Ídem. 27

³⁰ MUJIKA FLORES, Inmaculada (2002). *Transexualidad*, Bilbao: Aldarte

³¹ ARROYO, Gonzalo (2012). *Más de 3000 personas viven en España con un sexo que no sienten como propio*. El Mundo, otsailak 15.

³² MISSÉ, Miquel (2013). *Transexualidades: Otras miradas posibles*, Barcelona: Egales, S.L

DESKRIBAPENA

Diagnostiko hau 16-30 urte arteko 85 gazteetan (emakumeak eta gizonak) oinarritzen da, eta horiek Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko elkarteetako, kulturataldeetako, ikasleen erakundeetako, aisialdi hezigarriko federazioetako, alderdi politikoetako gazterietako edo sindikatu etako kideak dira. Proposamen metodologikoa analisi kuantitatibo batean datza emakumeari eta generoari, eta sexu-eta afektibitate-aniztasunari buruzko galdetegi espezifikoko baten bidez.

Ikerketa horretan hiru lurralde historikotako **85 gaztek** hartu dute parte guztira, **38 emakumek eta 47 gizonek**. % 16,5 Arabakoak, % 48 Bizkaikoak eta % 33 Gipuzkoakoak. Parte-hartzea eta Euskadin lurraldeka gazteek duten benetako banaketa alderatuz gero, ikus daiteke partaidetza-maila bat datorrela lurraldekako biztanleriaren kopuruarekin. Hau da, Bizkaiak, biztanle gehiago dituenak, partaidetza handiagoa izan du galdetegian; ondoren Gipuzkoak, eta azkenik, Arabak. Azken lurralde horrek ditu biztanle gutxien, eta, beraz, parte-hartze baxuagoa izan du.

Partaidetza-kultura duen gaztedia da, eta eskubide zibilen arloan aurrerakoia dena; hortaz, galdetu daiteke ea galdera berberak biztanleria osoari eginez gero, erantzun pixka bat kontserbadoreagoak eta sozialki ez hain aurreratuak izango lirartekeen edo balio berberei eutsiko lieketen.

TRESNA METODOLOGIKOAK

Diagnostiko hau egiteko tresna bakarra erabili da:

Galdetegia

Analisi kuantitatiboa egiteko bi zati dituen galdetegi bat erabili da: emakumea eta generoa, eta sexu- eta afektibitate-aniztasuna. Bi atal horien bidez, EGK-ko gazteek desberdintasunei buruzko zer pertzepzio duten jakin nahi da.

Gainera, bi modutan helarazi da. Lehenengoan, EGK-ko elkarte bakoitzari bidalitako mezu elektroniko baten bidez. Mezu elektroniko horretan lotura bat agertzen zen, eta zuzenean bideratzen zuen bete beharreko galdetegira. Bigarren moduari dagokionez, aurrez aurre helarazi zen 2015eko martxoaren 14an Donostian egin zen Kontseiluaren 34. Batzar Nagusian, eta bilerako partaideek inkesta bete zuten.

PARTE-HARTZEAREN DATUAK

Adina

Diagnostikoa 16-30 urte arteko gazteen artean egitea planteatu zen, uste delako adin-tarte hori dela gaztediarena, eta EGK gazteentzako erakunde bat delako.

Nolanahi ere, parte-hartzea aztertuta, 16-20 urte arteko gazteen proportzio txikiagoa izan da, eta proportzioa berdina izan da 21-25 eta 26-30 urte arteko baremoetan; horietako bakoitzak % 46ko parte-hartzea izan du.

Elkartek

EGK osatzen duten 60 elkartetatik 35 elkarte hartu dute parte Kontseiluak helarazitako inkestetan.

PARTE-HARTZAILEAK


EGKren berdintasun-inkestan 85 pertsonak hartu dute parte (38 emakumek eta 47 gizonek). Galdetegia era berean hedatu arren, erantzuna handiagoa izan da gizonen aldetik. Horren arrazoia zera da: EGKren 34. Batzar Nagusian emakumeek baino gizon gehiagok parte hartu zutela; ohikoa da hori, erabakiak hartze-ko espazio bat delako, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE)³⁴ argitalpen batek erakutsi duen moduan, maskulinizatua egoteko joera dago.

Lurralde historikoei dagokienez, % 16,5 Arabakoa, % 48 Bizkaikoa eta % 33 Gipuzkoakoa da. % 1ek erantzun du ez dakit/ez dut erantzuten, eta beste % 1 beste leku batekoa da.

Adinaren eta sexuaren araberako partaidetzari dagokionez, 16-20 urte arteko emakumeen % 5ek hartu du parte, 21-25 urte arteko % 47k, eta 26-30 urte arteko % 47k.

Gizonen kasuan, 16-20 urte arteko gizonen % 10,5ek hartu du parte, 21-25 urte arteko % 44,5ek, eta 26-30 urte arteko % 44,5ek.

2. grafikoa: Galdetegian parte-hartu duten emakume eta gizonen arteko proportzioa.



³³ ILO – Bureau for Employers' Activities (ACT/EMP) (2015). *La mujer en la gestión empresarial: Cobrando impulso*, Ginebra: OIT

GENERO-BERDINTASUNAREN PERTZEPZIOA

Galdetegiaren lehenengo zatian hainbat galdera egin dira, hezkuntzaren, lanaren, ekonomiaren, etxeko eta familiako erantzukizunen arloan, genero-indarkeriaren eta sentsibilizazio-kanpainen arloan emakumeek gaur egun duten egoerari buruz gazteek duten pertzepzioa ezagutzeko.

Inkesta honako galdera honekin hasten da: Gure gizartean rol eta estereotipo sexistek bizirik irauten dute?


% 96,5 bat dator gure gizartean rol eta estereotipo sexistek bizirik irauten dutela esatean. Aldiz, ehuneko txiki batek (% 2,5) uste du ezetz.

XXI. mende betean egon arren, non aparteko aurrerapenak dauden giza bizitza osatzen duten hainbat arlotan (hezkuntza, osasunean, lanean, teknologian eta abar), gizaritari osotasunez eboluzio-natzea areagotzen duten ohitura, jokabide edo arau oso errotu batzuk daude.

Sustraitze horretan aurkitzen ditugu **genero-rolak**: sexuaren arabera emakume batentzako edo gizon batentzako egokitutako jotzen diren ezaugarriak, egitekoak eta funtzioak. Rol maskulinoaren eta femeninoaren espezializazioa da gizartean eta gizarterako zereginen multzoa garatzean, eta lanaren sexu-banaketa deiturikoa ekartzen du; hain justu, azken gai hori aurrerago landuko da. Bestalde, munduan egoteko eta izateko eredu femeninoa eta maskulinoa osatzen duten alde zuzenak aurretik pentsatutako ideia, aurreiritzi, uste eta iritzi horiei eusten zaie, sexu biologikoaren arabera gizarte-ingurunean eta kultura patriarkalean ezarritakoak.

1. GALDERA:


Zure iritziz, gaur egun rol eta aurriritzi sexistek gure gizartean biziraute al dute?



3. grafikoa: rol eta aurriritzi sexisten biziraupenaren pertzepzioa.

2. GALDERA:

Beste sexuko pertsonekin alderatuta, jasotako heziketan ezberdintasunik somatzen duzu?



4. **grafikoa:** jasotako heziketak sexuaren arabera izandako ezberdintasun pertzepzioa.

3. GALDERA:

Lanbidea, ikasketa eta abar aukeratzeko orduan, generoarekiko aurriritziak bizirauten al dute oraindik? Adibidez, mutilak ingeniari, igeltzero, informatikari eta neskak herizain, irakasle, idazkari...

Galdetegiarekin jarraituz, gazteei galde-tu zitzaien **bestelako hezkuntza jasotzen ote den sexuaren arabera. Emakumeen % 55ek eta gizonen %44,5ek uste du baietz**, eta emakumeen % 37k eta gizonen % 51k uste du ezetz.

Gizonen eta emakumeen arteko alde hori faktore kulturalak eta bizipen pertsonalek eraginak dira sexuaren arabera, eta lagundu egin dute gizonek desberdintasunaren pertzepzio txikiagoa izaten emakumeek baino gai batzuetan.

Aurrekoarekin lotuta eta laneko sexubanaketari dagokionez, lanbide edo unibertsitateko ikasketa batzuk aukeratzeari buruzko galdera bat egin zen. Galdera horrekin jakin nahi zen gazteek uste duten generoarekin lotutako aurreiritziei eusten jarraitzen zaien ala ez unibertsitateko ikasketa batzuk edo lanbide bat hautatzean. **Emakumeen % 81,5ek eta gizonen % 85ek uste du eusten zaiela sexuarekin lotutako unibertsitateko ikasketei.**

Historian zehar sexuak argi eta garbi bereizitako lanbideak izan dira. Emakumeak idazkariak, erizainak edo maistrak ziren; aldiz, gizonek erantzukizun eta teknikotasun handiagoko lanpostuak zituzten, hala nola ingeniariak, medikuak edo mekanikoak ziren. Gaur egun, edonork egin ditzake ikasketak edo izan dezake lanpostu jakin bat, sexua gorabehera. Gainera, Eustaten 2013ko datuen arabera, EAEn unibertsitate-ikasketak amaitu zituzten 12.950 pertsonen artean, 7.330 emakumeak ziren, eta gainerako 5.620ak, gizonak.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea lana duten bi gaztetatik batek bere lana baino ikasketa-maila handiagoa duela gaur egun, Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren txosten batek adierazten duen moduan – zehazki **gazteen %54k bere lanak behar duena baino kualifikazio handiagoa dauka**-. Euskal gazteei dagokionez, 10etik 6k dute beren lanak behar duena baino kualifikazio handiagoa³⁴.

Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren datuetara itzuliz, egoera horrek emakumei gizonen baino gehiago eragiten die berriro ere. «Gehiegizko kualifikazioa» duten gizonak % 49 dira, eta emakumeak, berriz, % 60.

4. GALDERA:

Lan-munduari dagokionez, emakume eta gizonen artean ezberdintasunak daudela deritzozu?

Inkestari berriro helduta, **gazteen %86k uste du desberdintasun handiak daudela lan-egoerari dagokionez emakumeen eta gizonen artean**. Enpleguaren egoera eta alderdi desberdinek aztertzean, ikusten dugu emakumeen egoera alderdi guztietan okerragoa dela gizonena baino.

³⁴ VASCO PRESS (2014). Seis de cada diez jóvenes vascos están sobrecualificados para el trabajo que tienen. "El Correo", 11 de septiembre. Disponible en: <http://www.elcorreo.com/bizkaia/economia/201409/11/seis-cada-diez-jovenes-20140911130333.html>.



Jarraian, Euskadiko gazteek interpelaturako galderak aztertuko dira.

Lehenengo galdera emakumeek jasotzen duten soldatari buruzkoa da. **Galdetegiari erantzun dioten pertsonen %65,9k uste du emakumeek gizonak baino diru gutxiago jasotzen dutela.** Aldi berean, %32,9k uste du emakumeak eta gizonak berdintasunean daudela lan-gatik jasotzen duten soldatari dagokionez.

Gaindegiak 2014ko abenduan jasotako datuen arabera, emakumeen eta gizonen urteko soldaten arteko arrakala handitu egin da Euskal Herrian, krisi ekonomikoaren ondorioz. Urteko 7.688 euroko aldea dago. Nolanahi ere, gazteen artean soldata-arrakala txikiagoa da: emakumeek gizonak baino 1.537 euro gutxiago jasotzen dituzte urteko³⁵.


Emakumeek enplegua bilatzeko egoerari dagokionez, egoera berdina aukeraren eta okerragoa aukeraren artean antzeko emaitzak lortu dira. Emaitza orokorrean ia berdinketa adierazten duten arren, erantzunak sexuan oinarrituta aztertuz gero, emakumeen % 60,5ek uste du emakumeek lana bilatzeko egoera okerragoa dela; gizonen %36k uste du hori. Gizonen %55entzat egoera berean daude, emakumeen %34rentzat bezala. Areskulturalengatik eta bizipen pertsonalengatik da, sexuaren arabera.

Nabarmenezkoa da adin-baremo baxuenak, hau da, 16-20 urteko tar-teak egoera okerragoa dela dioela (% 71,5) gainerako bi adin-baremoek baino: 21-25 (% 41) eta 26-30 (% 49).



Emakumeak lana aurkitzeko gizonen egoera berean daudela dioen erantzunari dagokionez, ikusi da adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela berdintasun-egoeraren pertzepzioa: 16-20 (% 14), 21-25 (% 46), 26-30 (% 51).

Galdetegiarekin jarraituz, **emakumeek enpleguan duten egonkortasun-egoerari dagokionez, galdetutako pertsonen % 68,2k uste du emakumeen egonkortasuna okerragoa dela gizonena baino**, eta % 24,7ek uste du berdina dela.




Aldiz, hezkuntzari buruzko galdera bat egitean, galdetutako pertsonen % 89,5ek uste du hezkuntza jasotzeko aukera berbera dutela denek. % 6k uste du soilik okerragoa dela, eta % 2,5ek uste du hobea dela.

Galdetegian aurrera eginez eta lan-mundura itzuliz, planteatu da zein den emakumeen egoera lan-arrazoiengatik bidaiak egiteko. Hainbat argitalpenen arabera, egungo emakumeek hainbat zeregin egiten dituzte aldi berean: lan egin, ikasi, seme-alabak zaindu, lagunei eta familiari arreta eskaini, gainerakoengatik kezkatu... Zeregin askotaz arduratzen direnez, zaila da denera iristea.

Horregatik egin da emakumeek lan-arrazoiengatik bidaiak egiteko egoera ikusten duten moduari buruzko galdera. % 45,9k esan du gizona baino okerragoa dela, eta % 37,6ek uste du berdina dela.


³⁵ ESPAINIAKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (2014). Emantzipazio Behatokia: Euskadi. Hemen eskura daiteke: <http://www.cje.org/descargas/cje5595.pdf>



8. grafikoa: lanagatik bidaiak egiteko aukeren arabera, emakumeek gizonetikiko duten egoeraren pertzepzioa.


Kasu honetan, aldea dago erantzunean: sexuaren arabera aztertuz gero, emakumeen % 68,5ek uste du emakumeek lan-arrazoiengatik bidaiak egiteko egoera okerragoa dela. Gizonen % 27,5ek soilik uste du okerragoa dela. Egoera berdina dela uste dutenen kasuan, emakumeen % 23,5ek babestu egiten du hori, eta gizonen % 49k ere bai. Berriz ere, faktore kulturalak eta bizipen pertsonalek bultzatutako aldeak dira.

Bestalde, argi eta garbi galdetuz gero zein izango litzatekeen egoerarik onena emakumeentzat eguneroko bizitza eta arestian aipatutako zeregin horiek guztiak uztartzeko, galdetutako pertsonen erantzunak aldatu egiten dira. **%72,9k uste du emakumeen egoera okerragoa dela laneko eta familiako bizitza uztartzeko.** % 10,6ek uste du berdina dela eta % 12,9k uste du egoeraren errealitatea hobea dela.



9. grafikoa: lana eta familia uztartzeko aukerei dagokionez, emakumeek gizonetikiko duten egoeraren pertzepzioa.

Azken erantzun hori sakonago aztertzeke, etxeko erantzukizunei buruzko galdera bat planteatu da; askotariko erantzunak jaso dira, hurrengo orrialdeko grafikoa ikus daitezke.




10. grafikoa: etxeko lanak eta zaintza lanak gauzatzen dituzten pertsona edo pertsonak.

Erantzun zabalena honako iritzi hauetan daude: **% 24k esan du etxeko lanak familiako kide guztien artean egiten dituztela** (aita, ama eta seme-alabak), eta % 18k dio bikotearen eta bien artean egiten dituztela. % 16k esan du pisukidearen eta inkesta bete duenaren artean egiten dituztela, eta azkenik, amak egiten dituela esan du % 14,5ek.

Oro har, erantzunek azaltzen dute zereginak etxeko pertsonak partekatzen dituztela, **baina pisua etxeko pertsona bakar batean jarri behar izanez gero, ama da lehenengo aukera.**


Halaber, Gazteen Euskal Behatokiak 2012an egindako txosten baten arabera, gizon nahiz emakume gazteek onartzen dute emakumeek etxean gehiago lan egiten dutela eta gehiago arduratzen direla etxeko lanez.

Emakumeen egoerari buruz gazteek duten pertzepzioarekin lotutako galderak aitzeko, bi galdera egin ziren erantzukizun-lanpostuei buruz.



Duela gutxitik ikusten dira emakumeak erantzukizun-lanpostuetan. Badago **“kristalezko sabaia”** esapidea; hain zuzen, oztopo ikusezin bat dagoela adierazten du, eta eragotzi egiten du emakume bat erabakiak hartzen diren espazio profesioaletara iristea. Errealitatea zera da: gaur egun pitzadurak agertzen ari direla kristalezko sabai horretan, eta gero eta emakume gehiago daudela zuzendaritza-lanpostuetan.

Hala ere, **galdetutako pertsonen % 77,5ek erantzun du emakumeentzako zailagoa dela goimailako lanpostuak eskuratzea.** % 16,5ek soilik uste du aukera berdinak dituztela.



Bizitza politikoan emakumeek erantzukizun-lanpostuak eskuratzeari dagokionez, emaitza hobeak lortu dira; izan ere, gazteek berdintasun-egoerari buruz duten pertzepzioa % 27,1koa da, hau da: % 10,6 hobetu da aurreko grafikoarekin alderatuta.

Erantzukizun politikoko lanpostuak eskuratzeko egoera emakumeentzat okerragoa delako ustea jaitsi egin da % 7 aurreko grafikoarekin alderatuz gero, eta % 63,5eko emaitza lortu du.

Inkestarekin jarraituz, eta emakumeen bizipena soilik ezagutzeko nahiarekin, **emakumeentzat soilik egin da galdera bat**, emakume izateagatik bereizita sentitu ote diren inoiz jakiteko.

Emaitzak bat datoz hiru espazio desberdinetan: % 31,5ek erantzun du noiz edo noiz **bereizita sentitu dela etxean, lanean edo unibertsitatean eta bikoteko harremanetan**. Aldiz, % 68,5ek bermatu du ez dela bereizita sentitu hiru esparru horietako batean ere.

Lanpostu bat eskuratzeko bereizita sentitu ote diren galdetuz gero, baietz erantzun dutenen ehuneko % 3 areagotu da aurreko emaitzarekin alderatuta, hots: **% 34k esan du diferentziaren bat sentitu duela** emakume izateagatik soilik. % 58, ordea, ez da horrela sentitu.

Azkeneko galderan jakin nahi izan da gazteak bereizita sentitu ote diren beren militantzian edo boluntariotzan. Txostenaren hasieran azaldu den moduan, emakume horiek parte hartzen duten hainbat erakundek osatzen dute EGK. Hori dela eta, interesgarria da haien egoera ezagutzea. Haien erantzunen arabera, **% 23,5ek baieztatu du bereizita sentitu direla beren militantzian edo boluntariotzan**; aldiz, % 76k bermatu du ezetz.

Galdetegiarekin jarraituz eta emakume nahiz gizon gazteek parte hartuta, gure gizartean **berdintasun osoko egoerak izango lukeen oihartzunari** buruzko galderak egin dira. Emaitzak aztertu ondoren, **% 96,5 bat dator** eskubide horiek lortuz gero **gizartea bidezkoagoa izango zela** esatean. Gainera, baieztatu dute (**% 95**) **norbanako bakoitzaren garapen pertsonala erraztuko lukeela eta abantailak izango lituzkeela** pertsonentzat nahiz gizaki ororentzat (% 99).


Galdetegian aurrera eginda, jakin nahi da zein den genero-indarkeriaren pertzepzioa galdetutako gazteen artean; horretarako, hainbat galdera egin dira indarkeria-mota desberdinei buruz. Zeloak maitasunaren edo indarkeriaren seinale diren ezagutze-ko egin da lehenengo galdera.

Galderaren enuntziatuak zera aipatzen du: «zure bikotekideak zeloak izatea maitasunaren seinalea da». Horren aurrean, % 95 ez dator adierazpen horrekin bat; aldiz, **% 5 esanguratsu batek uste du zeloak maitasunaren adierazgarri direla.** Garrantzitsua da azpimarratzea kontuan hartzeko moduko ehuneko horren atzean 4 mutil daudela. Horietako batek 16-20 urte artean ditu; beste bik, 21-25 urte, eta azkenak, 26-30 urte.

Zeloak maitasun-ekintza gisa ulertze hori **maitasun erromantikoaren mitoarekin** hertsiki lotuta dago. Kultura-osagai bat da, deskribatzailea eta arauemailea, eta maitasunaren inguruan sinesmen eta irudi idealizatuak sortzea eragiten du. Horrek askotan zaildu egiten du harreman osasuntsuak ezartzea eta argi eta garbi abusuzko jokabide oldarkorrek onartzea, normalizatzea, justifikatzea eta toleratzea dakar.

Maitasun erromantikoaren prototipoaren baitan daude ezinezko maitasunak (maitasunak guztia gainditu dezake); bat-batean hasitako maitasunak (lehen begiradako maitasuna); itxaropen magikoak dituzten maitasun idealizatuak; zenbat eta gehiago sufritu, orduan eta pasio gehiago dagoen maitasunak; bizitzeko, arnasteko eta abarretarako bestearen premia dutenak... Laburbilduz: amodiozko jokabide-eredutzat hartzen da, eta erabakitzen du maitemintzea «benetan» zer den, zer sentimendu izan behar diren, nola, noiz eta norekin bai eta norekin ez.

Maitasun-mito horiek guztiek haurtzarotik iristen zaizkigu, printze ausartak printzesa eder eta ahula salbatzen zuela zioten ipuinen bidez. Halaber, mezu horiek bizitzan zehar jasotzen jarraitzen dira eta, besteak beste, abestien, literaturaren edo pelikulen bidez jasotzen ditugu. Maitasun erromantikoaren mezua indartzen duten filmen adibide gisa ditugu honako hauek: *A tres metros sobre el cielo*, *Tengo ganas de ti*, *Ilunabarra* edo *Titanic*.



Film horiek arrakasta handia izan dute zinemetan, eta gazte askok ikusi dituzte. Film horiek maitasun erromantikoa eta idealizatua elikatzen dute, eta maitasunaren errealitate distortsionatu eta, aldi berean, arriskutsu bat ematen dute.

Enuntziatuen aurrera jarraituz, galdera hau egin zitzaien: **«Alaba izanez gero, ez nioke gauean oso berandura arte irteten utziko, ezta etxera bakarrik itzultzen ere. Semea izango banu, gauzak desberdinak izango lirateke»**. Galdetutako pertsonen % 88 ez dago ados baieztapen horrekin; **% 12a, ordea, ados dago** (2 neska eta 7 mutil). Irteterakoan, neska asko daude honelako mezuak jasotzera ohituta: «ez joan bakarrik komunera», «ez itzuli bakarrik etxera, ez dezagun ezustekorik izan» edo «ez alendu zure lagunengandik». Mezu horiek inguru hurbilekoenetik jasotzen dira, eraso egingo diotelako beldurratik. Aldiz, gizonek emakumeak babesteko mezuak jasotzen dituzte, esaterako: «lagundu arrebari atariraino», «ez utzi neska-laguna bakarrik». Mezu horiek agerian uzten dute emakumeek nolabaiteko arriskuak dituztela, eta alarma-seinalea aktibatzen dute, batik bat, nesengan.

Hurrengo baieztapena zera da: **«neskak gehiago arduratzen dira neurri antikontzeptiboak hartzeaz, haiek geratu baitaitezke haurdun»**. Galdera horren aurrean, **% 65 ez dago ados; % 35a, ordea, ados dago**.

Ondoren, zenbait baieztapen egin ziren, eta bikote batengandik indarkeriazkoak izan daitezkeen jarrerak deskribatzen dituzte. Bikotearekiko mespretxuzko eta hertsadurazko jokabideak dira, hala nola harremanaren kontrola eta bikotearen posesibotasuna.

Indarkeria da...	Bai	Ez
Norekin atera behar zaren esaten dizu, eta norekin ez	97,5%	2,5%
Deiak, telefono mugikorraren bidez bidalitako mezuak eta posta elektronikoa kontrolatzen dizkizu	97,5%	2,5%
Ez du nahi zu lagunekin egotea	97,5%	2,5%
Iseka egiten dizu eta mina ematen dizuten gauzak esaten dizkizu	96,5%	3,5%
Zalantzan jartzen ditu zure sentimenduak, edo haserretu egiten da sexu-harremanik ez baduzue	93%	7%
Mehatxu egiten dizu utzi egingo zaituela esanez berak nahi duena egiten ez baduzu	97,5%	2,5%

1. taula: indarkeriazkoak izan daitezkeen jokabideak

Galdetutakoen gehiengoak baieztatzen du baieztapen horiek indarkeria direla. Azpimarratzekoa da bi enuntziatutan indarkeriaren pertzepziorik eza hazi egiten dela gainerakoekin alderatuta. «Iseka egiten dizu eta mina ematen dizuten gauzak esaten dizkizu» esaldian, % 3,5ek uste du egoera hori ez dela indarkeria; halaber, «zalantzan jartzen ditu zure sentimenduak edo haserretu egiten da sexu-harremanik ez baduzue» dioen esaldiari dagokionez, % 7k uste du hori ez dela indarkeria.

Nolanahi ere, onartu behar da gutxiegitasun metodologikoagatik eta politikoki zuzena denean erortzeko arriskuagatik, ehunekoan banaketa kontuan hartuta, zera pentsa daitekeela: planteatutako galderak ez dira oso bereizleak iritziari dagokionez, hau da, erantzunak jakinak eta hegemonikoak dira, edo galdetutako pertsonak antzematen dute sozialki onargarria den aukera baiezkoa dela, haien benetako iritzia edo jokabidea gorabehera, eta bata bestearen atzetik egotean, erantzun-aukera horretan kokatzen da sistematikoki.

Horregatik, garrantzitsua da Ikerketa Soziologikoen Zentroak (Ikerketa Soziologikoen Zentroak—CIS) 2013an egindako ikerketa³⁶ aurkeztea; azterketa horretan ezagutarazten da nola antzematen duten genero-indarkeria estatuko nerabeek eta gazteek. Jasotako datuen arabera, Espainiako 15-29 urte arteko gazteen % 33k, hau da, hirutik batek, uste du saihestezina edo onargarria dela zenbait baldintzetan bikotekideen ordutegiak kontrolatzea, familia edo lagunak ikustea eragozteko, lan egiten edo ikasten ez uztea, edo egin dezaketena edo egin ezin dutena esatea. Gainera, ondorio kezagarri bat ateratu zuten: gazteak ez dira helduak bezain kritikoa bikoteen arteko jokabide matxisten mota horrekin: nesken % 32k toleratzen du, eta emakumezko biztanleria orokorraren % 29k; aldiz, mutilen % 34k onartzen ditu, gizonen biztanleria orokorrak baino lau puntu gehiagok.

Ianire Estébanez³⁷ psikologoaren eta ziberaktibistaren blegean ahaztu ezin den errealitate bat aipatzen da, eta, hain zuzen, «Maitasunetik kontrolera klik kolpeka» izeneko artikulua bidez deskribatzen da xehetasunez. Estébanezen kronikaren arabera, sare sozialek eta Internetek oso azkar aldatu dituzte gazteen harreman- eta komunikazio-moduak. Teknologia berriak gure orainaldiaren baitan daude, eta belaunaldi gazteak bizi, sozializatu eta hazi egiten dira espazio birtualean duela zenbait urtetik. Artikulu horren bidez neska gazteek indarkeriari buruz duten pertzepzioa aztertzen da. Ukapena aipatzen du argumentu nagusi gisa bikoteen jokabide larriari garrantzia kentzeko, eta aldi berean, normalizatu egiten dituzte kontrol-jokabideak eta zeloak ohikotasunean oinarrituta («denek egiten dute»), eta hainbat argumentu deskribatzen ditu jazarpena eta kontrola justifikatzeko («nire berri izan nahi du, normala da»...).

Gaiarekin lotuta eta CISen ikerketara itzulita, ikerketaren koordinatzaileak, Verónica de Miguel soziologoak, adierazten du jasotako emaitzekin erakusten dela gazte asko, biztanleria orokorrarena baino proportzio handiagoan, ez dela gai indarkeria matxistaren mota jakin batzuk identifikatzeko: «Eraso fisikoak arbuaitu egiten dituzte hein handian, baina ez kontrolaren indarkeria, eta hori ere genero-indarkeriatzat hartu behar da».³⁸

Indarkeria fisikoari buruz hitz egitean, jasotzen ditugun berriak ez dira oso itxaropentsuak, zoritxarrez; Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) indarkeriari buruz jasotako datuen arabera, 2013an Espainian genero-indarkeriaren biktima mortalak izan ziren 54 emakumeen artean 13 emakumek 18-30 urte artean zituzten. Euskadin, Emakunderen³⁹ 2013ko datuen arabera, 4.983 biktimizazio izan ziren genero-indarkeriatatik. Garrantzitsua da jakitea biktimizazioen estatistikak pertsonen delitu penal bat jasan duten aldi bakoitza zenbatzen duela, eta delitu gisa Ertzaintzak erregistratu dituenak, salaketa edo atestatu baten bidez. Hortaz, pertsona berberak mehatxuengatik hainbat salaketa baditu, horietako bakoitzak biktimizazio bat sortzen du, eta, beraz, interesgarria da jakitea zenbat emakume izan diren genero-indarkeriaren biktimak. 4.983 biktimizaziotatik 3.974 emakume izan dira genero-indarkeriaren biktimak Euskadin. Horien guztien artean, 1.113 emakume 18-30 urte artekoak izan dira eta 334 emakume, 18 urte baino gutxiagokoak⁴⁰.

³⁶ CIS (2013). *Percepción social de la Violencia de Género por la adolescencia y la juventud*. Hemen eskura daiteke http://www.cis.es/cis/export/sites/default/Archivos/Marginales/2980_2999/2992/es2992mar.pdf

³⁷ ESTÉBANEZ, Ianire. Bloga: *Mi novio me controla*. Hemen eskura daiteke: www.minovio-mecontrola.com

³⁸ VIDALES, Raquel (2015). *Una de cada tres jóvenes considera aceptable que su pareja la controle*. El País, urtarrilak 27. Hemen eskura daiteke:

³⁹ EMAKUNDE (2013). *Violencia contra las mujeres en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/vcm_evaluacion_informes/es_def/adjuntos/violencia.datos.estadisticos.2013.cas.pdf



⁴⁰ Biktimizazioak: 18-30 urte artean: 1.373, eta 18 urte baino gutxiagoko 351.

Datu horiekin eta genero-indarkeriazko erasoekin lotuta, gazteei galdetu zitzaien **zer erreakzio izango luketen gizon batek emakume bati eraso egin edo tratu txarrak eman diola ikusiz edo jakinez gero**. Jasotako emaitzen arabera, **% 58,8k poliziar­ deituko lioke eta % 21,6k aurre egingo lioke**.

Badago ehuneko bat, % 12, beste modu batean jokatzea aukeratzen duena edo jokatzeko modu bat baino gehiago hautatzen dituen­a: 16-20 urte arteko mutil batek esan du «jende gehiagori ohar­taraziko liokeela eta poliziar­ deituko liokeela». 21-25 urte arteko beste mutil

batek adierazi du ez dakiela nola jokatu­ko lukeen horrelako egoera baten aurrean, baina nolabait jokatu­ko lukeela. Bestalde, 16-20 urte arteko neska batek azaldu du «erasotuarekin hitz egiten aha­legindu­ko litzatekeela bera aha­lundun­tzeko».

Sexuen arabera aztertuz gero, gizonen % 33k erasotzaileari aurre egingo lioke, baita emakumeen % 8k ere. Emakumeen % 87,5ek poliziar­ deituko lioke, eta gizonen % 33k ere bai. Eraso­kasu baten aurrean, gizonen % 15ek beste per­sona batzuen arre­ta piztu­ko luke, laguntzeko.




15. grafikoa: zer egin eraso baten aurrean egonez gero, emakume eta gizonen erantzunak alderatuta.

Adinari dagokionez, nabarmentzekoa da 26-30 urte arteko 6 pertsonak erasotzaileari aurre egingo liokeela. Adina jaitsi ahala, erasotzaileari aurre egingo liekeen pertsonen kopurua ere jaitsi egiten da: 21-25 urte artean, 4 pertsonak, eta 16-20 urte artean, pertsona batek.

Azkenik, emakumearen eta generoaren arloarekin zerikusia duen inkestaren lehen zatia ixteko, azken galdera bat egin da, eta galdetutako gazteek Euskadin emakumeari eta generoari eta indarkeria-mota desberdinei buruz gauzatzen diren sentsibilizazio-kanpainen gaineko pertzepzioa zein den jakin nahi da.

Galderez gain, sentsibilizazio-kanpainaren bati buruz proposamenak, ideiak edo kritikak azaltzeko espazio bat utzi da.



Erantzun gisa, % 67,1k uste du kanpainek laguntzen dutela errealitatea islatzen eta pertsonak kontzientziatzen; aldiz, % 17,6ek uste du ez direla nahikoa, eta % 15ek nahiago du ez erantzun.

Gazteen ahotsak kontuan izanda, honako iritzi eta proposamen hauek helarazi dizkigute galdetegiaren bidez:

21-25 urte arteko emakume batek zera uste du: **«Duela zenbait urtetik lantzen ahalegintzen ari den gaia dela kontuan izanda eta aurrerapenak oso motelak direla ikusita, uste du ez daudela nahikoa sentsibilizazio-kanpaina denboran mantentzen direnak**, hau da, kanpaina bat agertzen da, zenbait astetan lantzen da, eta gero ez da gehiago sentsibilizatzen hurrengora arte. Etengabea izan beharko litzateke».

Aldi berean, adin bereko beste emakume batek hau uste du: «Sentsibilizazio-kanpainek gizartea kontzientziatzen dute, baina kontzientziak oso azalekoa da. Genero-indarkeria erraz antzematen dugu; hala ere, zailtasunak ditugu beste bereizketa-mota batzuk identifikatzeko».

Iritzi horren harira, 21-25 urte arteko mutil batek zera esan du: «Sentsibilizazio-kanpainek ez dute konponduko arazoaren sustraia telebistak eta iragarkiek sexismoa bultzatzen jarraitzen duten artean. Hezkuntzak garrantzia izugarria du horretan guztian...Hortaz, sentsibilizazio-kanpainak ondo daude, baina hori soilik ginez gero... oker bat da».

Hezkuntzarekin jarraituz, 26-30 urte arteko gizon batek hau esan du baita ere: «Kanpainak euren kabuz ez dute arazoa konponduko; gakoa hezkuntza da, haurretan nahiz helduetan».

Horri dagokionez, 26-30 urteko neska batek zera dio: «Gai hau asko lantzen da hezkuntza formalean nahiz ez-formalean, eta oso positiboa da hori. Nire ustez, gure etxeetan eraikitzen dugu sexuen banaketa. Txikitatik gure gurasoak eta inguruko jendea da jarraitu beharreko gure eredu, eta uste dut horiek ez diotela ematen gai horrek nahiz beste askok behar duen garrantzia, hala nola alkoholak, indarkeriak, norberaren higieak, ikasketek... (...). Gainera, haurrek eta gazteek ez dute esaten denetik ikasten, ikusten dutenetik baizik».

21-25 urte arteko beste mutil baten ustez ere zamarik handiena generoletan dago: «Nire iritziz, gizartea sentsibilizatuta dago eta erantzuna ematen du genero-indarkeriako egoera ematen direnean; nolahi ere, gizarteak ezarritako rol horiek aldatzen ez baditugu, horrelako egoerak jarraitu egingo dute».

Adin-tarte bereko beste mutil batek zera kritikatu du: «Erakundeetatik kudeatzen den sentsibilizazio-kanpainak ez doaz gaiaren erroraino, eta askotan, elementu hutsalekin lehengorutzen dituzte. Indarkeriaren ondorioak jartzen dituzte agerian, eta ez dira joaten haren alderdi ideologikora».

Azkenik, 26-30 urte arteko mutil batek eskera bat egin du: «Emakumeen beldurraren filosofia erakusteari utzi, eta irakatsi gizonei errespetua, berdintasuna, tolerantzia eta adimen emozionala bezalako balioak».

Galdetutako pertsonen iritzi eta gomendio interesgarri horiekin amaitzen da galdetegiaren lehen zatia. Argi geratu da sentsibilizazio-kanpainak garrantzitsuak eta onuragarriak direla gizartea kontzientziatzeko; hala ere, bat datoz nahikoa ez direla esatean. Irizpide hori kontuan hartu behar da balorazio bat egiterakoan, dagokion eraldaketarekin, publiko guztientzako INDARERARIK EZ mezua hobetzeko.

SEXU- ETA AFERTIBITATE-ANIZTASUNAREN PERTZEPTZIOA

Inkestaren bigarren zatian sexu- eta afektibitate-aniztasunari buruzko galderak egin dira. Pertsona lesbianeiei, gayei, transexualei-transgeneroei eta bisexualei buruzko galderak dira; horiek taldean LGTB siglarekin adierazten dira.

Une honetan, eskubideak eskuratzearekin eta LGTB taldearen ikusgarritasun eta normalizazio sozialarekin eta kulturalarekin batera, onartu da sexu- eta afektibitate-aniztasuna ez dela arazo bat; eztabaidarako gaiak honako honek izan behar du: homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobia egotea, hori baita berdintasunaz hitz egin ahal izateko bide luzea izatearen oztopo nagusia, legezko berdintasuna izan arren. Zoritxarrez, gure gizartean geratzen den homofobia –horren baitan hartuta lesbofobia, bifobia eta transfobia– oro har uste dena baino indartsuagoa da. Nolanahi ere, jokabide homofoboak baino, emaitzetan nabarmentzen da LGTB pertsonentzako gizarte-desabantaila larriak egotearen pertzepzioa, bereziki transexualei dagokionez. Euskadin sexu-orientazioagatik eta genero-sexu identitateagatik egunero jasaten den egiturazko bereizketaren egoerari buruzko alerta argia da hori.


Hori dela-eta, inkesta honen bidez, EGK-ko gazteen pertzepzioa neurtu nahi da sexu- eta afektibitate-aniztasunari buruz: biztanleriak talde horrekiko duen tolerantzia, bereizketa-ekintzarik badagoen, sexu-orientazioagatik edota sexu-identitateagatik eduki ditzaketan zailtasunak ezagutzea, eta gazteek duten iriziaz jabetzea LGTB pertsonen eskubideak bermatzen dituzten neurriak ezarri behar izateari buruz.

Lehenengo galdera **LGTB pertsonen bereizketa-egoerari** buruzkoa da. Jasotako erantzuna argia da: **galdetutako gazteen % 89,4ek uste du baietz.** % 3,5ek soilik esan du ezetz.

Aurreko galderaren haritik, talde horrek euskal gizartean jasotzen duen tratua-mota zein den ezagutu nahi da. **Gazteen % 55,3ek bermatzen du modu bidegabeagoan tratatzen zaiela gainerakoekin alderatuta.**

1. go GALDERA:


¿LGTB pertsonak bazterketa egoeran daudela uste duzu?



17. grafikoa: LGTB pertsonen bazterkeria egoeraren pertzepzioa.

2. GALDERA:

Euskal gizarteak, zein tratua ematen die LGTB pertsonari?



18. grafikoa: euskal gizarteak LGTB pertsonari ematen dien tratua-ren pertzepzioa

Emaitza horren atzean, adin-bare-moei dagokienez, 21-25 urteko gazteen % 46k berretsi egiten du, 26-30 urteko gazteen % 69k bezala. Nolanahi ere, **galdetutako guztien % 9,4ek uste du modu mesedegarriagoan tratatzen direla.** Beste pertsona batzuek, **%20k, uste du beste edozein pertsona bezala tratatzen direla,** hau da, modu berean. Nabarmentzekoa da erantzun hori gehien babesten dutenak 16-20 urte arteko gazteak direla, parte hartutako en % 43. Azkenik, % 7,1k esan du ez duela arretarik jarri horretan.

Inkestarekin aurrera jarraituta, eta gizarteak pertsona talde horri ematen dion tratua baloratu nahian, hainbat galdera egin dira horienganako fobia eta bereizketa balioeste aldera. Jakina denez, urte luzez pertsonen talde horrek ezin izan ditu publikoki erakutsi beren sentimenduak eta premiak gainerakoekiko, kondenatu egiten baitzituzten gizarte heteronormatibo batek ezarritako arautik ateratze hutsagatik.


Sexu- eta afektibitate-aniztasun hori badagoela ezagutzen dute gizaki guztiek; hala ere, pertsona guztien onarpena ez da modu berean gertatzen. Horregatik, bereizketa- eta homofobia/transfobia-ekintzak gertatzen dira, besteak beste: irainak, eraso fisikoak, bullying, mehatxuak, etsaitasuna. Horregatik, inkesta egin duten pertsonak ikusi edo entzun dituzten eraso-motak balioetsiko ditugu jarraian.

Lehenengo balorazioarekin gazteek LGTB pertsonari zuzendutako irainik entzun ote duten jakin nahi da. Galdera horri erantzunda, **% 70,6k baieztatu du entzun dituela irainak LGTB pertsonari zuzenduta**, eta % 27,1k erantzun du ezetz.

Gainera, azterketa sakonagoa egin da, inkesta egin duten pertsona guztien artean LGTB pertsonak bereizketa-egoeran daudela uste dutenen **% 75ek esan du horiei zuzendutako irainak entzun dituela**.

3.1 GALDERA:

Ikusi edo entzun duzu LGTB pertsonen kontrako eraso edo diskriminaziorik? (irainak)



19. GRAFIKOA: hauen sexu orientazioa dela eta LGTB pertsonen aurkak irainak entzun dituzten pertsonen kopurua.

Bereizketa modu desberdinekin jarraituz, **gazteen % 81,2ek esan du talde horri buruz gaizki hitz egiten entzun duela**. Halaber, inkesta egin duten eta LGTB taldea bereizketa-egoeran dagoela balioesten duten pertsonen % 84k bermatu du talde horri buruz gaizki hitz egiten entzun duela.

Galdeketari erantzun diotenen entzun dituzten komentarioak **aurreiritziak** dira; hain zuzen, Allportek (1962)⁴¹ honela zehazten ditu: «Generalizazio inperfektu eta zurrun batean babesten den antipatia bat. Sentitu edo adierazi egin daiteke. Talde bati zuzenduta egon daiteke oro har, edo norbanako bati, talde horretako kide izategatik. Aurreiritziaren azken ondorioa da xede den pertsona bere jarreragatik merezi ez duen desabantaila-egoera batean kokatzea».


Kasu honetan, subjektuek komentarioak egiten dituzte gutxiengokoak ez diren beste pertsona batzuekin⁴², eta iruzkin negatiboak edo mespretxuzkoak egiten dituzte pertsona-talde horri buruz, gutxiago direla eta heterosexualak baino eskubide gutxiago dituztela pentsatuz.

Honelako adibideak daude zabalduta, besteak beste: «gay guztiak promiskuoak dira», «gayak dotoreak eta finak dira», «bisexualak biziosoak dira», «ziur zaude lesbiana zarela?» ez duzu ematen! «Oso polita zara», «zein da mutila harremanean? (harreman lesbiko batean)», eta abar.

Bereizketa handiak (hiltzea, kartzelaratzea, heriotzara zigortzea eta abar) duela hainbat hamarkada indargabetu ziren arren, berdintasun formala lortu arren eta gizarteak aurrera egin arren gay, lesbiana, transgeneroa eta transexuala izatearen arloko ideietan, antzeman da gizarteak onartzen duela LGTB izatea, baina baldintzekin eta «bainekin». Aldartek⁴³ 2010ean argitaratu zuen dokumentu baten arabera, ikusi zen aniztasunarekiko tolerantzia eskasa lortu dela soilik, ez dago

3.2 GALDERA:

Ikusi edo entzun duzu LGTB pertsonen kontrako eraso edo diskriminaziorik? (komentario txarrak)



20. grafikoa: hauen sexu orientazioa dela eta LGTB pertsonen gaineko komentario txarrak entzun dituzten pertsonen kopurua.

onarpena errespetuan eta berdintasunean, eta tratu desberdina antze-
man da erakundeen arlo askotan eta eguneroko bizikidetzaren espa-
rruan.


**Azkenaldian, nahi baino gehiagotan, entzuten diren «bain-
na» horiei Aldarten «intentsitatearen arabera homofobia» deitzen diete.** Honako esaldi hauetan itzultzen dira: «Nik erres-
petatzen ditut gay eta lesbianak, errespetatzen dut esaten edo egiten
dutena, BAINA... seme-alabak izate hori...kalean maitasuna erakustea...
komunikabide orotan agertzea... nire neba/arreba/ahizpa lesbiana/gay
izatea mingarria da...»

Esaldi horiek entzun daitezke, besteak beste, gure kaleetan, eta **homo-
fobia sotil** deitzen zaie; hain zuzen, *transversales* aldizkarian⁴⁴ honela
zehazten dira: «Homofobia horrek nolabaiteko tolerantzia du gay eta
lesbianekiko, eta errespetatu egiten dituztela esaten dute, leku marjinala
eta isila ematearen truke, bigarren mailako sexualitate batena. Homo-
fobia hori duten pertsonak enfatikoki baieztatzen dute bakoitzak nahi due-
na egiteko eskubidea duela bere bizi-
tza pribatuan, baina, aldi berean, jasa-
nezina egiten zaie espazio publikoan
ikusgarri eta entzungarri izatea».

Ikusi edo entzun al duzu irainik edo
bullying ekintzarik LGTB pertsonen
zuzenduta? **Galdetutakoek %
55,3ek ikusi edo entzun ditu
irainak eta bullying ekintzak
LGBT pertsonen zuzenduta,** eta
% 42,4ek ezetz erantzun du.

3.3 GALDERA:

Ikusi edo entzun duzu LGTB
pertsonen kontrako eraso edo
diskriminaziorik?(txantxak edo
bullying-a)



21. grafikoa: hauen sexu orientazioa dela eta LGTB pertsonen gaineko txantxak edo bullying ekintzak entzun/ikusi dituzten pertsonen kopurua.

⁴¹ BAENA PÉREZ, Daniel; CALVENTE PÉREZ, Maria del Rocio y DÍAZ SÁNCHEZ, Marina. "Homosexualidad, ¿Qué actitud tienen los universitarios al respecto?" Hemen eskura daiteke: digibug.ugr.es/bitstream/10481/27752/1/ReiDoCrea-Vol.2-Art.17-Baena-Calvete-Diaz.pdf

⁴² Ibid

⁴³ ALDARTE (2010). *Eliminar los prejuicios y silencios sutiles*. Hemen eskura daiteke: <http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/ManifiestoALDARTE28JunioWEB.pdf>

⁴⁴ GIMENO, Beatriz (2007-2008). *Homofobia. transversales* aldizkaria, 9. zk., negua.

Galdera horrekin lotuta dago FELGTBk 2012an⁴⁵ argitaratutako txosten bat; dokumentu horretan LGTB pertsonen ikasgeletan daukaten egoera aztertzen da. Estatuan 12-25 urte arteko nerabeei eta gazteei egindako ikerketa bat da. Horiek guztiak beren burua lesbiana, gay, bisexual edo heterosexuala ez den beste mota batekotzat jotzen dute, eta LGTB taldekoa izateagatik bizi duten bereizketa-egoera deskribatzen dute.


Txosten horren arabera, jazarpen homofobikoko mota desberdinen artean, ahozko jazarpena eta isolamendua errepikatzen dira gehien; gainera, kasuen % 53 12-15 urte artean hasten da. Urteak igaro ahala, eta nerabezaroa atzean utzi ahala, ikasgelan jasaten dituzten bereizketa-jarrerak murriztu egiten dira. Jokabide horiek gazteetan min handia sortzen dute, eta umilazio, amorru, tristura, ezintasun, ulertzeintasun, bakardade, ahultasun eta isolamendu sentimenduetan agertzen da. Gainera, galdetutakoen % 82k bermatzen du ez dela ikasgelako jazarpen homofobikoaren berri eman familiei ukatuak izatearen beldur izateagatik, horretaz lotsatzeagatik edo beharrezkotzat ez ikusteagatik. Azken datu garrantzitsua: eskolako jazarpenaren infernua jasandako nerabeen eta gazteen % 43k beren buruaz beste egiteko aukera planteatu zuten. Horien artean, % 81ek xehetasunez planifikatu zuten. Eskolako jazarpen homofobikoa⁴⁶ jasan zutenen artean % 17 beren buruaz beste egiten ahalegintzera iritsi zen.

LGBTB taldearen bereizketa-motan urrats bat aurrera eginez, eta homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobia mota erasokorrago bat ezagutzeko asmoz, galdeketa parte hartutako gazteei galdetu zitzairen ea inoiz ikusi edo entzun duten mehatxurik LGTB pertsonen zuzenduta, eta ea ikusi duten pertsona talde horri egindako eraso fisikorik.

Hurrengo bi galderei gehienek ezetz erantzun arren, nabarmendu behar da gazteen kopuru esanguratsu batek adierazi duela bereizketa-ekintza horien lekuko izan direla, eta hori azpimarratzekoa da. Eraitza horiek berretsi egiten dute gure gizartean geratzen den homofobia oro har onartzeko prest gaudena baino askoz ere indartsuagoa dela, eta banakoen mailan existitzen dela.

3.4 GALDERA:


Ikusi edo entzun duzu LGTB pertsonen kontrako mehatxurik?



22. grafikoa: LGTB kolektiboko pertsonen kontrako mehatxuak ikusi dituzten pertsonen kopurua.

3.5 GALDERA:

Ikusi duzu LGTB pertsonen kontrako eraso fisikorik?



23. grafikoa: LGTB pertsonen kontrako eraso fisikorik ikusi duten pertsonen kopurua.


% 82,4ek ezetz erantzun du; aitzitik, % **15,3ek bermatu du eraso fisikoak ikusi dituela LGTB pertsoneri zuzenduta**. Hortaz, LGTB taldeari zuzendutako mehatxuak entzun dituen pertsonen kopurua handiagoa da eraso fisikoak ikusi dituzten pertsonen kopurua baino. Nolanahi ere, jasotako datuak garrantzitsuak dira, eta horiek landu egin beharko lirateke.

Azkenik, LGTB pertsoneri buruz hitz egitean areriotasunik ikusi duten galdetu da.

% 74,1k ez du ikusi edo entzun mehatxurik LGTB pertsoneri zuzenduta. Aldiz, **galdetutako gazteen % 23,5ek baietz erantzun du**. Sakonago aztertuta, talde horrekiko bereizketa badagoela balioesten duten pertsonen artean, % 23,5ek baieztatu mehatxuak ikusi dituela; inkesta egin dako pertsonen % 76k, aldiz, ez.

3.6 GALDERA:

Ikusi edo entzun duzu LGTB pertsonenganako kontraktasunik?



24. grafikoa: LGTB pertsonenganako kontraktasunik ikusi edo entzun dituzten pertsonen kopurua.

⁴⁵ GENERELO, Jesús (2012). *Acoso escolar homofóbico y riesgo de suicidio en adolescentes y jóvenes LGB*. Madril: FELGTB Hemen eskura daiteke: <http://www.felgtb.org/rs/1584/d112d6ad-54ec-438b-9358-4483f9e98868/91c/filename>

⁴⁶ Eskolako jazarpen homofobikotzat hartzen da edozein pertsonak jasaten duena genero-itxaropenei ez erantzutegatik. Jazarpen mota horrek hainbat aldagai ditu, hala nola bifobia edo lesbofobia, eta askotan, sexu-orientazio heterosexuala duen gazteei ere eragiten die.

% 398,8k esan du ikusi duela aurkaritza, etsaitasun edo antipatia bat talde horrekiko, talde horretakoa izateagatik. Hala ere, % 58,8k bermatu du ez duela mota horretako egoerarik ikusi.

Gizarteak LGTB taldeari ematen dion bereizketa-tratuari buruzko erantzun kezagarriak aztertu ondoren, pertsona-talde horrek beren sexu-orientazioagatik edota sexu-identitateagatik aurre egin behar dien ozto-poak aztertzen jarraituko dugu.

Zailtasunak dituzten beste espazioetako bat lan-mundua da. Aldartek egindako ikerketa batek (*Lesbianas con recursos*) azaltzen du LGTB pertsonak duten egoera zaila, eta zehazki, lesbianena ⁴⁷, lanpostu bat eskuratzeko, hari eusteko, goragoko karguetakoek eta lankideek baliotsiak izateko, eta bereziak edo kaleratuak izatea saihesteko.

Lana pertsonen bizitzako funtsezko ardatzetako bat dela aintzat hartuta, bizi-kalitate jakin bat izan ahal izateko diru-sarrerak ematen ditu; horrez gain, ordea, hainbat adjektibo esleitzen ditu, hala nola duintasuna, autoestimua eta gizarte-estatusa, eta edozein gizakik du horiek galtzeko beldurra⁴⁸. LGTB pertsonen kasuan, beldur-sentsazioa are handiagoa da ahultasun-egoera berezia dutelako, eta berehalako efektua du haiengan: **ikusgarri ez bihurtzea**.


Laneko Eskubidea erregulatzen duen lege-esparru zabala dago, eta bereziki, lan-arloan bereizketarik ez egiteari dagokionez. 2000an onartu zen Europako Kontseiluaren 2000/78/CE Zuzentaraua, enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako lege-esparru orokorra ezartzen zue-na; zuzentarau hori Espainiako legedian landu da 62/2003 Legearen bidez, tratu-berdintasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioa benetakoa eta eraginkorra izan dadin neurriak ezartzeko enpleguarekin zerikusia duen guztian. Horrek zera esan nahi du: bereizketa zuzenik edo zeharkakorik ez egotea pertsona baten sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik.

⁴⁷ Ikerketak lesbianen eta gizartearen edozein arlotan (arlotu juridikoan, ekonomikoan, hezkuntzakoan, lanekoan eta soziokulturalean) aurre egin behar dieten egoeren analisia egiten du.

⁴⁸ MUJICA FLORES, Inmaculada; OLAORTUA GONZÁLEZ, Elena; ORTIZ ATIENZA, Josune y VILLAR SÁENZ, Amparo (2013). *Lesbianas con recursos: Una mirada sobre el acceso y el uso de los recursos sociales en la CEA por parte de las mujeres lesbianas*. Bilbo: Aldarte

4. GALDERA:

LGTB pertsonak traba gehiagotzatzen dituztela lan-munduan uste duzu?



25. grafikoa: LGTB pertsonak lan munduan trabak dituztela uste duten pertsonen kopurua.

Gai horrekin lotuta, EGK-k egindako galdetegiak gazteei planteatu zien LGTB taldeak eragozpen handiagoak dituen lan-arloan.


Galdetutakoek % 57,6ek uste du baietz; aldiz, % 16,5ek uste du ezetz. Arreta pizten duen beste gauzetako bat da galdetutakoek % 25,9a, hau da, emakumeen % 29a eta gizonen %23,5 erreprimitu egin dela galdera horri erantzutean. Ez dakigu zergatik, baina hainbat hipotesi egin daitezke horren inguruan.

Hortaz, lan-arloan LGTB pertsonak babesteko eta bereizketaren aurkako esparru zabala dagoenez, ez luke eragozpenik egon behar sexu-orientazioa edo genero-identitatea modu irekian adierazteko. Nolanahi ere, LGTB pertsonak zein sexu-orientazio duten modu irekian esaten ote duten galdetutakoan, **galdetutakoek % 61,2k uste du ez dutela argi esaten.** Aitzitik, % 16,5ek uste du, gaur egun, XXI. mendean, pertsonen talde horrek zintzotasunez agertzen eta islatzen duela.

Grafiko hau giltzarria da, eta ezkutuko homofobiari buruzko gogoeta sakona egiteko bide ematen du. Soziki, sexu- eta afektibitate-aniztasuna ez da arazo bat, baina grafiko horien emaitzek kontrajarri egiten dituzte pentsamendu horiek.

5. GALDERA:

LGTB pertsonak zer sexu-orientazio duten argi eta garbi esaten dutela uste al duzu?



26. grafikoa: LGTB pertsonak haien orientazio sexuala modu irekian adierasten dutenaren pertzepzioa.

Zergatik uste du gazteen % 61ak LGTB pertsonak ez dutela modu irekian esaten zein den haien sexu-orientazioa? Zer ezkutatzen da adierazpen hori egiteko ezintasunaren atzean? Uste baino homofobia gehiago al dago? Benetako armairu sozial baten pertzepzioaren aurrean gaude.

Lesbianas con recursos izeneko ikerketak erakusten digu talde horren ikusezintasuna oso zabalduta dagoela, eta lesbianena aipatzen da zehazki. Gertakari latz horrek sufriarazteaz gain, ondorio negatibo zuzenetara bideratzen ditu, hala nola ez ausartzera eskubide jakin bat baliatzera (adibidez: ezkontzeagatik edo izatezko bikote egiteagatik har daitezkeen egunez edo gaixotasunagatik har daitezkeen egunez gozatzea), eta prezio oso altua ordaintzen dute ukapen horregatik.

Inkestarekin jarraituz, eta mitoei, estereotipoei eta aurreiritziei erantzunez, hainbat enuntziatu planteatu ziren, eta galdeketan parte hartu zutenek hau erantzun zuten:

	Ados	Ez nago ados
Bizitza sexuala alde batera utzita, alde gutxi dago pertsona gay, lesbiana edo bisexualen eta heterosexualen artean.	%89,5	%9,5
Gayek joera handiagoa dute Sexu Transmisiozko Gaixotasunez (STG) kutsatzeko.	%10,5	%86
Transexualitatea desoreka bat da.	%0	%99
Osasun publikoak ordaindu behar du pertsona transexualen sexu-berresleipeneko prozesua.	%72	%23,5
Nire semea-alaba gay edo lesbiana baliatzen ez litzaidake inportako, baina uste dut zailagoa izango litzatekeela haren bizitza.	%74	%25

2.taula: Mitoak, estereotipoak eta aurreiritziak

Taula horretan ikus dezakegu galdetutakoen **% 89,5 ados dagoela pertsona gay lesbiana edo bisexualen eta heterosexualen artean alde gutxi dagoela esatean. Gayek Sexu Transmisiozko Gaixotasunez kutsatzeko joera handiagoa izateari buruzko galderan, % 86 ez dago ados.** Era berean, **transexualitatea desoreka bat izateari buruzko galderari dagokionez, % 99 ez dago ados**, eta galdera horretan ez da baiezko erantzunik jaso.

Hala ere, transexualitatea desoreka psikiatrikoen baitan dago oraindik gaur egun, homosexualitatea 1990era arte egon zen moduan; nolana-hi ere, egunez egun aurrera egiten ari gara horrela ez hartzeko, hori baita, hain zuzen, pertsona transexualen taldeen aldarrikapenetako bat. Hainbat herrialdetan, hala nola Suedian edo Frantzian, dagoeneko ez dago desoreka psikiatrikoen artean. Ildo horretan jardun da Eusko Legebiltzarra (2010/09/30), Europako Parlamentua (2011/09/28), Espainiako Gobernuak (2010/05/14) edo zenbait erakunde profesional, hala nola Sexologia Elkarteak Espainiako Federazioa.

Osasun publikoak pertsona transexualen sexu-berresleipeneko prozesua ordaintzeari buruzko galderari dagokionez, % 72 ados dago, eta % 23,5 ez dago ados. Eraitza hori sexuaren arabera banakaturik gero, emakumeen % 21 eta gizonen % 17 ez dago ados proposamen horrekin, eta gainera, **gizonen % 8,5 ez dago batere ados.**

Gaur egun, Gurutzetako Ospitalean (Bizkaia), zehazki Genero Identitateko Unitatean, diziplina askotako zerbitzu bat eskaintzen da, besteak beste: psikiatrak, psikologoak, endokrinologoak eta zirujau plastikoak, batik batik; hala ere, ginekologoak, dermatologoak, urologoak, barne-medikuntzako medikuen edo foniatriaren parte-hartze jakinak ere izaten dituzte⁴⁹. Abian jarri zenetik, duela bost urte baino gehiagotik, arreta eskaintako pertsonen kopurua areagotu egin da. 2013an argitaratutako azken datuek erakusten dute 120 transexualek jaso zutela tratamendua unitate honetan, izan tratamendu psikiatrikoa, hormonalak edo izan kirurgikoa.

Taulako azkeneko galdera honako hau da: **«Nire semea-alaba gay edo lesbiana balitz ez litzaidake inportako, baina uste dut zailagoa izango litzatekeela haren bizitza».** % 74 ados dago, eta % 25 ez dago ados. Emakumeen % 79 ados dago esaldi horrekin, eta gizonen % 70 ere bai. Emakumeen % 18 eta gizonen % 29,5 ez dago ados.

⁴⁹ CARRERO, Maria José (2013). *120 transexuales vascos reciben tratamiento psíquico, hormonal y quirúrgico en Osakidetza*. "El Correo", utzailaren 26a. Hemen eskura daiteke: <http://www.elcorreo.com/vizcaya/20130726/mas-actualidad/sociedad/transexuales-vascos-reciben-tratamiento-201307221856.html>


de los hombres también. Un 18% de las mujeres y un 29,5% está en desacuerdo.

Galdetutako pertsona gehienek, batez ere lehen hiru galderetan, mi-toen, estereotipoen eta aurreiritzien inguruko desadostasun handiagoa erakusten dute; azken bi esaldietan aniztasun handiagoa dago, eta ia % 25 dago enuntziatuen aurka. Eraitza horiek erakusten dute oztopoak daudela LGTB pertsonen bidean, eta askotariko iritziak eta ikusmolde desberdinak daudela.

Hurrengo galderaren xedea da jakitea ea pertsona transexuala bereizketa-egoera larriagoan dagoen edo ez gainerako LGTB taldearekin alderatuta. Transexualitatea ezezaguna da oraindik, informazioa falta delako, eta, gainera, transexualitatearen errealitateari buruz desinformazio eta eraldatze izugarria dagoelako, eta erabat bestelakoak diren kontzeptuekin nahasten da, batzuk eraldatuz eta, aldi berean, beste batzuk ezkutatuz; azkenean, horrek guztiak ondorio handiak ditu pertsona transexualen eskubideetan eta bizitzetan. Horregatik, oso garrantzitsua da kontzeptuak argitzea eta mito faltsuak eta aurreiritziak amaitzea.

6. GALDERA:

Transexual bat eta gay, lesbiana edo bisexual bat modu berean onartzen direla uste duzu?.



27. grafikoa: Pertsona transexualen onarpen mailaren pertzepzioa, gay, lesbiana eta bisexualekin alderatuta.

Hurrengo galderaren helburua da ezagutzea ea modu berean onartzen den pertsona transexual bat eta pertsona gay, lesbiana edo bisexual bat. Inkestan parte hartu duten gazteen pertzepzioaren arabera: **% 88,2k uste du ez direla modu berean onartzen**, eta soilik % 8k uste du baietz.

Transexualitatearekin lotutako galderetan urrats bat gehiago emanez, jakin nahi da ea galdeketan parte hartu duten gazteek harreman sentimental/sexual egonkor bat izango luketen pertsona transexual batekin, eta honako emaitza hauek jaso dira:

% 33k erantzun du ez lukeela harreman sentimental/sexual egonkor bat izango pertsona transexual batekin. Sexuaren arabera aztertuz gero, galdetutako emakumeen % 25ek eta gizonen % 39k adierazi du ezetz. Beste batzuei dagokienez, **% 32k esan du harreman bat izango lukeela, pertsonaren arabera.** Sexuen arabera banakatuz gero, emakumeen % 42k eta gizonen % 23,5ek esan

du hori. Gainerako **% 8ak baieztatu du harreman sentimental/sexual egonkor bat izango lukeela pertsona transexual batekin.** Garrantzitsua da azpimarratzea **emakumeetako bakar batek ere ez duela baietz erantzun.** Azkenik, pertsonen %27 abstenitu egin da, eta ez du erantzun


Amaitzeko, inkestako azkeneko galderaren bidez jakin nahi da Euskadiko gazteak ados egongo liritekeen LGTB pertsonen eskubideak bermatzeko neurriak ezartzearekin, Katalunian egin zen moduan.

Hain zuzen, Kataluniako Parlamentuak 2014ko urriaren 10an onartutako 11/2014 Legea da, eta hori onartu zen lesbianen, gayen, bisexualen, transgeneroen eta intersexualen eskubideak garatzeko eta bermatzeko xedearekin, eta homofobia, bifobia eta transfobia errotik kentzeko helburuarekin; horrela, Katalunian sexu- eta afektibitate-aniztasuna askatasun osoz bizi daitekeela bermatu nahi da.

Lege horretan hainbat neurri aurkezten dira gizarte-arlo desberdinetan (hezkuntza; unibertsitatea; kultura, aisialdia eta kirola; komunikabideak; osasuna; gizarte-ekintza; ordena publikoa eta askatasun-gabetzea; parte-hartzea eta solidaritatea; enplegua); horiek arduratuko dira bereizketarik ez egoteko sexu-orientazioko, genero-identitateko edo genero-adie

7. GALDERA:

Izango zenuke harreman sentimental/sexual egonkor bat transexual batekin?



28. grafikoa: pertsona transexual batekin harreman sexual/sentimental egonkor bat mantentzeko adostasuna.

razpeneko arrazoiengatik. Neurri horiek bete ezean, dagokion zigorra jasoko da, arau-haustearen larritasunaren arabera (arina, larria edo oso larria).o expresión de género.


Hori dela-eta, euskal gazteei galdetu zaie ea beharrezkoa ikusten duten Euskadin LGTB pertsonen eskubideak bermatzeko neurriak ezartzea.

Galdetutako pertsonen % 89,5 LGTB taldearen eskubideak bermatzen dituzten neurriak ezartzearen alde dago; soilik % 2,5ek du kontrako iritzia.

Azken galdera horrekin amaitzen da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak parte hartu duten eta kide diren gazteei egindako galdetegia, genero-berdintasunarekin eta sexu- eta afektibitate-aniztasunarekin lotutako galderekin.

8. GALDERA:

LGBTB pertsonen eskubideak bermatzeko neurriak ezarri behar direla uste duzu?



29. grafikoa: LGTB pertsonen eskubideak bermatzeko neurriak ezarri behar direla uste duten pertsonen kopurua.

Ondorioei ekin aurreko gogoeta gisa aipatzekoa da parte-hartzearen alderdia. Azterlanek erakutsi arren emakumeak parte-hartzaileagoak direla gizarte-arlo desberdinetan⁵⁰, berdintasunari buruzko galdetegi honek joeraren aurkako datuak jaso ditu, emakumeek baino gizon gehiagok parte hartu baitute (47 gizonek, 38 emakumek). Horren arrazoia zera da: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren 34. Batzar Nagusian emakumeek baino gizon gehiagok parte hartu zutela; horrekin erakutsi da gizonen nagusitasunak zutik jarraitzen duela ebazpen-arloetan eta erabakiak hartzea oso maskulinizatuta dagoela, baita gazteen taldeetan ere.

Emakumeen kokapena gizarte-antolakuntzako sistema maskulino batek ezarritako desberdintasun sozialen eta kulturalen menpe egoten jarraitzen duela erakusteko, eguneroko gertakariei so egin besterik ez dago antzemateko oraindik ere urrun geratzen dela emakumeen eta gizonen arteko eskubideen eta aukeren benetako berdintasuna.

Hori berresten dute galdetutako gazteek, ikerketa-lanean jasotako datuen arabera. Gazteen % 96,5ek uste du, gaur egun, genero-rolak eta estereotipo sexistek iraun egiten dutela gure inguruan. Gainera, % 85,9ak uste du desberdintasunak daudela lan-arloan emakumeen eta gizonen artean, eta egoera okerragoan daudela uste dute lanpostu bat aurkitzeko, berdintasunezko soldata bat jasotzeko, enpleguan egonkortasuna izateko, enplegua beste erantzukizun-mota batzuekin uztartu ahal izateko edo lanean nahiz bizitza politikoa erantzukizun-karguak eskuratzeko aukerari dagokionez.

⁵⁰ ESPAINIAKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (2013). *Gazteak eta parte-hartzea: gazteen parte-hartzeari buruzko ikerketa.*

Emaizta horiek jaso ondoren, hasieran planteatutako zenbait hipotesi baieztatu dira. Hipotesi horietako lehenengoa hau zen: «Agian, emakumeak ordaindutako lan-munduan sartzea izan da mendebaldeko gizartearen egiturazko aldaketa garrantzitsuena XXI. mendean». Hala ere, desberdintasunak egoten jarraitzen dute sexuari eta generoari dagokionez, eta emakume gazteak gizonak baino pauso bat atzerago daude.

Hortaz, baieztatu egin da emakumeek lan-munduan duten presentzia areagotu egin dela urteak igaro ahala, eta are gehiago 1976tik aurrera, orduan onartu baitzen emakumeek lan bat onartzeko aukera senarren baimenik gabe. Lege horrek ekarri zuen aurrerapena handia izan arren eta emakumeei burujabeak izateko eta laguntzarik behar ez izateko askatasuna eman zien arren, errealitatea zera da: gizonen pausuen atzetik jarraitzen dutela oraindik ere, oso gaituta badaude ere.

Era berean, genero batekoa edo besteko izateak izateko eta sentitzeko modu bat ekartzen du, baita jokabide-itxaropen, gaitasun, trebetasun eta bete beharreko rol batzuk ere. Maskulinoa eta femeninoa izateko eredia osatzen duten erantzukizun batzuk dira, eta horien jatorria ez da biologikoa; aldiz, gizarte- eta kultura-eraikuntza batzuen ondorioa dira. Horrek bigarren hipotesia berresten du: «Generoa da pertsonen arteko hierarkiak ezartzen dituen elementuetako bat, eta integrazioko eta segregazioko egoeretan banatzen ditu».

Gazteek behatzen dituzten desberdintasunen pertzepzio handira itzulita, ahalegina egin da gazteen bizipenak ezagutzeko beren gizarte-egoerari dagokionez. Bitxiki, galdetutako emakumeek genero femeninoa izateak bereizketan amaitzen duela bultzatzen badute ere, beren esperientziari buruz galdetutakoan, emaitzak ez dira hain kategorikoak oro har galdetzen zaienean diotenarekin alderatuta, baina ondorioek larriak izaten jarraitzen dute era berean. Gazteen % 68,5 ez dira bereizita sentitu etxean, lanean edo unibertsitatean eta bikote-harremanetan. Enplegua eskuratzeari buruz galdetutakoan, % 58k esan du ez dela bereizita sentitu, eta azkenik, militantzian edo boluntariotzan bereizita sentitu ote diren galdetutakoan, % 76k ezetz erantzun du. Nolanahi ere, oraindik ere kezagarria da inkestan parte hartu duten zenbait emakume gutxiagotasun-egoeran sentitu dela galdetutako edozein arlotan.

Genero-indarkeriari dagokionez, hainbat galdera egin dira, eta horien xedea izan da jakitea zein den indarkerien pertzepzioa galdetutako gazteen artean. Bikote batek izan ditzakeen indarkeriazko jarrerak deskribatzearen bidez, jakin nahi da ea galdetutako gazteak identifikatzen dituzten mespretxuak, hertsadurak, harremanaren kontrola eta bikotearen posesibotasuna. Ehuneko handi batean, inkestan parte hartu duten gazteek indarkeriazko jarreratzat dituzte honako hauek: «deiak, mugikorrek mezuak edo posta elektronikoko mezuak zelatatzen dizkizu»; «zalantzan jartzen ditu zure sentimenduak»; «haserretu egiten da sexu-harremanik izan ezean», edo «mehatxu egiten dizu utzi egingo zaituela esanez berak nahi duena egiten ez baduzu».

Ikerketan jasotako emaitzen eta kontrolaren indarkeriari⁵¹ buruzko hainbat ikerketetan islatzen diren datuen aurkakotasunak adierazten du galderak egiteko modua ez zegoela behar bezala landuta; izan ere, politikoki zuzena den erantzuna aukeratzea errazten zen, benetako iritzia eta jokabidea alde batera utzita. Gaur egungo gazteek berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutzak dituzte, eta kasu honetan, eragina izan dute galderei erantzutean.

Nolanahi ere, ikerketaren emaitza guztiak kontuan hartuta, esan daiteke beste hipotesi bat desmuntatu daitekeela; hain zuzen, gazteek Euskadiko gazteek baino genero-desberdintasunen pertzepzio handiagoa izateari dagokiona. Desegindako hipotesia izan arren, zenbait ñabardura lortu dira; izan ere, zenbait emaitzatan ikusi da sexuaren arabera zenbait kultura-faktorek eta bizipen pertsonalek lagundu egin dutela emakumeek desberdintasunen pertzepzio arinki handiagoa antzematea gizonen baino.

Lehenengo atala amaitzeko, aipatu behar da gazteen arabera Euskadin emakumea eta generoari eta indarkeria-mota desberdinei buruz gauzatutako sentsibilizazio-kanpainek lagundu egiten dutela biztanleria kontzientziatzen arazo horri buruz. Hala ere, askok gehitu dute horiek ez direla nahikoak, eta alegatu dute kanpainek beren kabuz ez dutela konponduko arazoa errotik, ezta indarkeriak dakarren gizarte-gaitza ere.

⁵¹ Espainiako 15-29 urte arteko gazteen % 33k, hirutik batek, uste du saihestezina edo onargarria dela zenbait baldintzatan kontrola bikoteekiko, eta ukatu egiten dituzte hein handiangoan eraso fisikoak, baina ez kontrolaren indarkeria; azken hori ere genero-indarkeriatzat hartu behar da.

Galdetegiarekin jarraituz, galderen bigarren multzo bat egin zen, sexu- eta afektibitate-aniztasunarekin lotuta. Gai horri buruzko lehenengo hipotesian azaltzen da 2012an Gazteen Euskal Behatokiak 1.500 euskal gazteri egindako inkesta baten arabera, horien % 87 sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde dagoela, eta % 81ak babestu egiten du legezko sexu-aldaketa. Horri dagokionez, EGK-k susmatzen du Euskadiko gazteen artean LGTB pertsonak onartu arren, oraindik ere badaudela LGTB taldearekiko bereizketa-ekintzak (irainak, erasoak, mehatxuak eta abar), eta horiek zaildu egin dezaketela gizartean duten ikusgarritasuna.

Zoritxarrez, azken suposizio hori bete egin da. Inkestan lortutako emaitzen arabera, galdeketan parte hartutakoen % 89,5ek antzematen du LGTB taldea bereizketa-egoera dagoela. Gainera, % 55ek uste du euskal gizarteak modu bidegabeagoan tratatzen dituela gainerakoekin alderatuta, LGTB pertsona bat izate hutsagatik.

Jakin badakigunez, LGTB taldearen ikusgarritasun eta normalizazio soziala eta kulturala gero eta handiagoa da. Sexu- eta afektibitate-aniztasuna dagoela onartzen da, eta dagoeneko ez da arazo bat; hala ere, homofobia eta transfobia dira oztopo nagusiak, eta, beraz, zaila da benetako berdintasuna lortzea pertsona-talde horrentzat.

Bereizketa handiak, esaterako heriotza-zigorra edo kartzelaratzeari duela zenbait hamarkada abolitu ziren arren, bereizketa-ekintzek jarraitu egiten dute eta agerian jartzen dira honako datu hauekin: gazteen % 70,5ek ikusi ditu LGTB pertsonen aurkako irainak, % 81ak pertsona horiei buruz gaizki hitz egiten entzun du, eta % 55ek bullying edota isekak ikusi dute LGTB taldearen aurka. Bereizketa-ekintzekin jarraituz, % 23,5ek esan du ikusi dituela mehatxuak pertsona horiekiko, % 15 eraso fisikoaren lekuko izan da, eta % 39k ikusi du jendeak haiekin hitz egiteari utzi diola edo etsaitasuna erakutsi zaiela LGTB pertsonak izategatik. Ondorioz, eskuratutako ehunekoak izugarriak bezain kezagarriak dira.

Aztertu beharreko beste alderdietako bat da nola erantzuten dieten gazteek pertsona horiekiko mito, estereotipo eta aurreiritzi horiei. Ia aho batez objektatzen dute bizitza sexuala alde batera utzita, alde gutxi dagoela pertsona gay, lesbiana edo bisexualen eta heterosexuaren artean. Halaber, % 86 ez dago ados gayak Sexu Transmisiozko Gaitasunez (STG) kutsatzeko joera handiagoa dutela dioen baieztapenarekin; bestalde, galdetutakoek (% 74) erakutsi dute ez

litzaiekeela axolako haien seme-alaba gay edo lesbiana izatea, baina uste dute bizitza zailagoa izango lukeela, oztopo gehiago izango lituzkeela lan-munduan, eta ezingo luketela beren sexu-orientazioa modu irekian adierazi (% 61). Horrek honako galdera honetara eraman gaitu: Zer ezkututzen da pertsonen pentsamenduaren atzean modu irekian gay edo lesbiana den edo ez den adierazteko? Gazteek esaten dute onartzen dutela homosexualitatea, baina galdera horren emaitzak erakutsi nahi digu uste baino ezkutuko homofobia gehiago dagoela?

Transexualitateari dagokionez, datuek adierazten dute pertsona horiek direla Euskadin gizarteak onartzeko zailtasun gehien dituztenak LGTB taldeari buruz hitz egitean. Inkesta egindakoan % 88ren arabera, ez da modu berean onartzen gay, lesbiana edo bisexual bat eta transexual bat. Horrez gainera, pertsona transexual batekin harreman sentimental edota sexual egonkor bat izango luketen galdetutakoan, gaitzespen-emaitzak jaso dira, eta galdera erantzutea saihesteko babestu dira. Pertsona-talde horrekiko arbuiatze handiagoa erakusten da taldeko gainerakoekiko baino. Hala ere, transexualitatea desoreka gisa hartzerakoan, gazte guztiak baieztapen horren aurka agertu dira.

Azkenik, adierazi behar da gazteen % 72 ados dagoela osasun publikoak pertsona transexualen sexu-berresleipena egiteko prozesua ordaindu behar izatearekin, eta % 89,5ek uste du LGTB pertsonen eskubideak bermatzeko neurriak ezarri beharko liratekeela.

Amaitzeko, emaitzek erakusten dute Euskadiko gazteen artean sexu-aniztasuna errespetatzeko adierazleak balio altuetan edo oso altuetan egon arren, horien benetako translazioak zailtasun handiak dituela. Hau da: LGTB pertsonen aurkako indarkeriazko eta bereizketako ekintzak daude oraindik; era berean, euskal gazteek antzematen dute zailtasunak dituztela gizartearen hainbat arlotan, eta horiek eragotzi egiten dietela nolabait ikusgarriak izatea, eta talde horrekiko onarpena erakutsi arren, diferentzia ezartzen duten «bainak» daudela. Alderdi positiboan artean azpimarratu behar da egungo bereizketak eta arazoak argi identifikatzen direla, eta horrek erraztu egiten du diagnostikoa, neurriak ezartze aldera.

Emakumeen kasuan, haien egoera ere konplexua da. Espazio publikoan aurrerapen handiak egin arren, emakumeek beren bideari jarraitzen diote gizonek baino pauso bat atzerago; gainera, iraganean espazio pribatua eman zitzaizkien erantzukizun bereberak eusten jarraitzen dute, nahiz eta, galdetutako gazteen arabera, gaur egun etxeko lanak partekatuta egiten diren gutxi edo gehiago. Indarkeria-motei dagokienez, eraso fisikoen arbuiatzea orokortuta dago, baina kontrolaren indarkeria ere genero-indarkeri gisa hartu behar da.

Hortaz, emaitzek erakusten dute oraindik bide luzea dagoela egiteko, borroka egiteko arrazoi sendoak eta lortu beharreko helburu handi bat:

«Gure garaian mundua mugitzen duten indar handienetako bat berdintasunaren iraultza da».

Barbara Ward.

GOMEDIOAK ETA PROPOSAMENAK

- EUSKADIKO GAZTERIAREN
KONTSEILUARI ZUZENDUTAKOAK**
- INSTITUZIO ETA GAZTE
ELKARTEEI ZUZENDUTAKOAK**

Lan hau analitikoa eta deskribapenekoa da. Irakurlea EGK-ko kidea, erakunde-ordezkarri bat edo erakunde bateko gazte bat izatearen araberaren, irakurketa bat edo beste bat izan dezake, eta horren ondorioz jardun. Bereziki dirigista ez izateko xedez, gomendio orokorrenak eta unibertsalizagarrienak multzokatu dira, eta lekua utzi da, eskuratutako datuen arabera, pertsona edo erakunde interesdunak izateko ikerketa honek iradokitzen dituen neurriak hartzen dituztenak.

Gure errealitatea aldatzeko, desberdintasunak betikitzen dituzten mekanismoak desaktibatzen joan behar dira, gazteen inguruan eta gizartean oro har daudenak: familian, hezkuntzan, lan-munduan, sare sozialetan, komunikabideetan... Argi dago ezin dela testuinguru osoa kontrolatu, baina ahaleginak egin daitezke han eragina izateko sentsibilizatuz eta modu integrarean aurrea hartuz.

Gaur egun, sentsibilizazio-lan handia egiten da berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan hainbat arlotatik (erakundeak, hezkuntza-zentro formalak eta ez-formalak, erakundeak, etab.); hala ere, ez da nahikoa. Argi eta garbi antzematen dira egiten ari diren ahaleginak, gazteek eurek ikusten dituzte, baina gehiago sakondu behar da, eta arazoaren jatorrira iritsi. Era berean jardun behar da LGTB taldearekin, bereizketa-egoera kezkaragarrian baitago, eta gogor lan egin behar da arlo horretan. Hori dela-eta, honako proposamen hauek aurkezten dira:

EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUARENTZAKO GOMENDIOAK

1** Uste da beharrezkoa dela betaurreko moreak txertatzea EGKren baitan, **ikuspegi berri bat emateko lantaldeak egindako jarduera eta ekintza guztiei**. Horregatik, **EGK-ko langileentzako arlo horretako prestakuntza izatea komeni da**.

2** Berdintasunaren ikuspegi bat izatea komeni da urtean zehar gauzatzen diren jarduera, lantalde, topaketa eta proiektu guztietan. Hori dela-eta, **gida bat sortzea komeni da generoaren eta sexu- eta afektibitate-aniztasunaren ikuspegia txertatzeko**.

3** **Genero-berdintasunari eta LGTB taldeari buruzko ikerketen, estatistiken eta txostenen jarraipena egin behar da**, errealitate desberdinak zabaltzeko eta biztanleria gaztea kontzientziatzeko. Gainera, lan honek zenbait arrasto emango ditu berdintasunaren arloan gauzatu beharreko ekintzei eta neurriei buruz.

4** Bestalde, uste da egokia dela **salaketa-protokolo bat sortzea emakumeen aurkako indarkeria- eta bereizketa-egoeretarako, nahiz LGTB taldearen aurkakoe-tarako**.

5** Azkenik, **uste da lan-arlo iraunkor bat sortu behar dela** genero-berdintasunarekin eta LGTB taldearekin lotutako gaiak lantzeko, gainerako lan-arloetan ikuspegi hori zeharka txertatzen laguntzeko.

ERAKUNDEETARAKO ETA GAZTE ELKARTEETARAKO GOMENDIOAK

1** Kontuan hartuta gazteek ulertzen dutela zertan datzan indarkeria, beste urrats bat gehiago eman beharko litzateke haren adierazpen guztietan identifikatzeko, eta orokorrean nahiz haien harremanetan antzeman ahal izateko. Hori dela-eta, proposatu da **sentsibilizazio-kanpainetan genero-rol eta -estereotipo horiek sakonago lantzea, baita mespretxuzko eta bikotearekiko hertsadura-jarrerak**, harremanaren kontrola eta bikotearen posesibotasuna ere.

2** Ildo horretan iradokitzen da **rolak lantzea lagun-taldeetan eta lagun-taldeen arteko harremanetan**. Horiek bikotea bilatzeko osagai bat dutela ulertzen da, baina berdinen arteko gizarte-inguruneak ere badira, eta landu beharreko hainbat arlo ere badituzte: lidergoak, taldeko jokabideak eta abar.

3** Halaber, **emakumeen lan-munduko egoerari buruz jasotako emaitzak aintzat hartuta, uste dugu ekintza positiboak indartu egin behar direla** emakumeei enpleguan berdintasunezko benetako kokapen bat lortzea eragozten dieten egoerak, aurreiritziak, jokabideak eta praktika kulturalak eta sozialak ezabatzeko.

4** LGTB taldeari dagokionez, azpimarratu behar da zaila dela Euskadiko LGTB pertsoneri buruzko benetako datuak eskuratzea. Hori dela-eta, proposatzen da **ikerketa bat⁵² egitea talde horri buruz, haien oztopo nagusiak sakon aztertzeko**: homofobia eta transfobia, baita ezkutuko homofobia ere, berdintasun oso lortzearren lan egiteko.

5** Ildo horretan, komenigarria da euskal erakunde publikoek lan-
tzea **behatoki edo institutu autonomo baten premia, ho-
mofobiaren benetako egoeraren jarraipena egiteko eta
berdintasun-neurriak bultzatzeko** egingo dituen diagnostikoe-
tan oinarrituta, eta arreta berezia jarrita gazteen errealitateari. Ildo ho-
rretan, beste leku batzuetan gertatu den bezala, hala nola Katalunian⁵³,
**komeni da Eusko Legebiltzarrak balioestea osoko lege
bat onartzea berdintasunerako eta LGTB taldearen es-
kubideak bermatzeko**, eta espezifikoki lehenesteko sexu-orienta-
zioko arrazoiengatik bidegabeko eta desberdintasuneko egoerak erro-
tik kentzea.

6** Bestalde, beharrezkoa da **kontzientziazio-lana egitea
biztanleriaren artean** LGTB taldeari buruzko desinformazioa eta
distortsioa amaitzeko, taldea ezagutzen laguntzeko eta gizartearen
onarpen orokorra errazteko. Era berean, uste dugu **generoaren eta
sexu-aniztasunaren arloko hezkuntza** eskaini behar litzate-
keela hezkuntza formalaren baitan.

7** Inkestan parte hartu duten gazteen % 89,5eren babesak ikusi-
ta, uste dugu **LGBT pertsonen eskubideak bermatzeko neu-
rriak ezarri beharko liratekeela**, homofobia, bifobia eta trans-
fobia errotik kenduz, eta Euskadin sexu- eta afektibitate-aniztasuna
askatasun osoz bizi daitekeela bermatuz.

8** Amaitzeko, interesgarria izango litzateke **erakunde eta gaz-
teen talde guztiek beren jarduera eta proiektu guztietan
genero-berdintasuneko eta sexu-aniztasuneko ikuspegi
bat txertatzea**, errealitatea ikusgarri egiten eta berdintasuneranzko
bultzada bat emateko aldaketa txertatzen laguntzeko, gazteak izanez
protagonista nagusiak.

⁵² GONZÁLEZ, GONZÁLEZ, Fabio eta RODRÍGUEZ, Eugeni, (2014). *El Estado de la Homofobia en Catalunya*, Bartzelona: Observatori Contra l'Homofòbia

⁵³ SUST, Tony (2014). *Catalunya se dota de una pionera ley integral contra la homofobia*. "El Periódico" Sociedad, urriak 3. Hemen eskura daiteke: <http://www.elperiodico.com/es/noticias/sociedad/catalunya-dota-una-pionera-ley-integral-contra-homofobia-3569872>

BIBLIOGRAFIA

-LIBURUAK

-IKERKETA ESPEZIALIZATUAK

-EGUNKARI ETA ALDIZKARIAK

-WEB ORRIALDEAK

DOSAL, Pilar (2002). *Construyendo la igualdad en el espacio público*, Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.

ANTOLÍN VILLOTA, Luisa (2004). *Agentes de igualdad de oportunidades*, Madrid: FOREM.

MEGÍAS QUIRÓS, Ignacio y BALLESTEROS GUERRA, Juan Carlos (2014). *Jóvenes y género, el estado de la cuestión*, Madrid: Reina Sofía Zentroa Nerabezaroari eta Gaztediari buruz.

MURILLO, Soledad (1996). *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio*, Madrid: Siglo Veintiuno.

SETIÉN, María Luisa Y SILVESTRE, María (2003:187). *Problemas de las mujeres, problemas de la sociedad*, Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

AGUINAGA ROUSTAN, Josune (2008). *Mujeres jóvenes del siglo XXI*, Madrid: Gazteriaren Institutua.

FDEZ VILLANUEVA, C.; DGUZ BILBAO, R.; REVILLA CASTRI, J.C.; ANAGNOSTOU, A.; SANCHO HDEZ, M. (2004). *La igualdad de Oportunidades. Los discursos de las mujeres sobre avances, obstáculos y resistencias*, Bartzelona: Icaria.

AMARÓS, Celia y VILLOTA, Paloma de (2004). *Globalización y desigualdad de género*, Madrid: Síntesis.

MISSÉ, Miquel (2013). *Transexualidades: Otras miradas posibles*, Bartzelona: Egales, S.L.

DE MIGUEL LUKEN, Verónica (2015). *Percepción de la Violencia de Género en la adolescencia y juventud*, Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Hemen eskura daiteke:

<http://www.interior.gob.es/documents/642012/1626283/Percepci%C3%B3n+violencia+g%C3%A9nero+en+la+adolescencia+y+juventud+e+ne+2015.pdf/4921b47f-3d08-426c-af9d-ae5b9f5e1244>

MUJIKA FLORES, Inmaculada; OLAORTUA GONZÁLEZ, Elena; ORTIZ ATIENZA, Josune y VILLAR SÁENZ, Amparo (2013). *Lesbianas con recursos: Una mirada sobre el acceso y el uso de los recursos sociales en la CEA por parte de las mujeres lesbianas*. Bilbao: Aldarte.

GAINDEGIA (2014). *Se contratan más mujeres pero la precariedad también es mayor*. Gaindegia, abenduak 12.

Hemen eskura daiteke

<http://www.gaindegia.eus/es/azpimarra-etb-mercado-laboral-mujer>

ESPAINIAKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (2014). *Emantzipazio Behatokia: Euskadi*.

Hemen eskura daiteke: <http://www.cje.org/descargas/cje5595.pdf>

BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA (2013). *Sexu-jazarpeneko eta jazarpen sexistako egoerei aurrea hartzea eta arreta eskaintzea hirugarren sektoreko erakundeetan*.

Hemen eskura daiteke: http://www.3sbizkaia.org/Archivos/Documentos/Enlaces/1452_OTs_abuztua_2013.pdf

EUSTAT (2014). *Euskal A Eko biztanleria, lurralde-eremuen eta jaiolekuaren arabera, 2014*. Hemen eskura daiteke: www.eustat.es

MUJIKA FLORES, Inmaculada eta URETA BASAÑEZ, Ana (2007). *Orientación sexual: guía para jóvenes*, Bilbo: Aldarte.

- MUJIKA FLORES, Inmaculada (2002). *Transexualidad*, Bilbao: Aldarte.
- ILO – Bureau for Employers Activities (ACT/EMP) (2015). *La mujer en la gestión empresarial: Cobrando impulso*, Ginebra: LANE.
- CIS (2013). *Percepción social de la Violencia de Género por la adolescencia y la juventud*.
Hemen eskura daiteke: http://www.cis.es/cis/export/sites/default/Archivos/Marginales/2980_2999/2992/es2992mar.pdf
- EMAKUNDE (2013). *Violencia contra las mujeres en la Comunidad Autónoma del País Vasco*.
Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/vcm_evaluacion_informes/es_def/adjuntos/violencia.datos.estadisticos.2013.cas.pdf
- ALDARTE (2010). *Eliminar los prejuicios y silencios sutiles*.
Hemen eskura daiteke: <http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/ManifiestoALDARTE28JunioWEB.pdf>
- GENERELO, Jesús (2012). *Acoso escolar homofóbico y riesgo de suicidio en adolescentes y jóvenes LGB*. Madrid: FELGTB
Hemen eskura daiteke: <http://www.felgtb.org/rs/1584/d112d6ad-54ec-438b-9358-4483f9e98868/91c/filename>
- ESPAINIAKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (2013). *Gazteak eta parte-hartzea: gazteen parte-hartzeari buruzko ikerketa*.
- GONZÁLEZ, Fabio eta RODRÍGUEZ, Eugeni, (2014). *El Estado de la Homofobia en Catalunya*, Bartzelona: Observatori Contra l'Homofòbia

EFE (2015). *Emakumeek 79 egun gehiago lan egin behar dituzte urtean gizonak adina kobratzeko*. Deia, otsailak 17.

Hemen eskura daiteke: www.deia.com

EFE/EUROPAPRESS (2012). *Euskal gazteen % 87 ezkontza homosexualen alde dago*. El Correo Bizkaia, maiatzak 17.

Hemen eskuratu daiteke: <http://www.elcorreo.com/vizcaya/20120517/mas-actualidad/sociedad/jovenes-vascos-esta-favor-201205171135.html>

LA INFORMACIÓN (2014), uztailak 18.

Hemen eskura daiteke: www.Lainformacion.com

ADRIÁN HERNÁNDEZ, Tamara (2014). *Nacer en un mundo equivocado*, Donostia: Gehitu Magazine, 89. zk.

VILLAR SÁENZ, Amparo (2001). *Querer a contracorriente*, Bilbo: Andra

ARROYO, Gonzalo (2012). *Más de 3000 personas viven en España con un sexo que no sienten como propio*. El Mundo, otsailak 15.

VASCO PRESS (2014). *Seis de cada diez jóvenes vascos están sobrecualificados para el trabajo que tienen*. El Correo, irailak 11. Hemen

eskura daiteke: <http://www.elcorreo.com/bizkaia/economia/201409/11/seis-cada-diez-jovenes-20140911130333.html>.

VIDALES, Raquel (2015). *Una de cada tres jóvenes considera aceptable que su pareja la controle*. El País, urtarrilak 27.

Hemen eskura daiteke: http://politica.elpais.com/politica/2015/01/27/actualidad/1422363044_535263.html

BAENA PÉREZ, Daniel; CALVENTE PÉREZ, Maria del Rocio eta DÍAZ SÁNCHEZ, Marina. *Homosexualidad, ¿Qué actitud tienen los universitarios al respecto?*

Hemen eskura daiteke: <http://digibug.ugr.es/bitstream/10481/27752/1/ReiDoCrea-Vol.2-Art.17-Baena-Calvete-Diaz.pdf>

GIMENO, Beatriz (2007-2008). *Homofobia*. transversales aldizkaria, 9. zk., negua.

CARRERO, Maria José (2013). *120 transexuales vascos reciben tratamiento psíquico, hormonal y quirúrgico en Osakidetza*. El Correo, uztailak 26. Hemen eskura daiteke: <http://www.elcorreo.com/vizcaya/20130726/mas-actualidad/sociedad/transexuales-vascos-reciben-tratamiento-201307221856.html>

SUST, Tony (2014). *Catalunya se dota de una pionera ley integral contra la homofobia*. El Periódico Sociedad, urriak 3.

Hemen eskura daiteke: <http://www.elperiodico.com/es/noticias/sociedad/catalunya-dota-una-pionera-ley-integral-contra-homofobia-3569872>

EUROPA PRESS (2015). *Extremadura aprueba una ley "histórica" de igualdad de colectivos LGTB*. Extremadura, martxoak 19.

Hemen eskura daiteke: <http://www.europapress.es/extremadura/noticia-aprobada-unanimidad-ley-garantiza-reproduccion-asistida-lesbianas-cambio-sexo-extremadura-20150319191833.html>

FERRER, Sandra (2010). Emakumeak historian.

Hemen eskura daiteke: <http://www.mujaresenlahistoria.com/2010/12/la-primera-escritora-christine-de-pizan.html>

ESTÉBANEZ, Ianire. Bloga: Mi novio me controla.

Hemen eskura daiteke: www.minoviomecontrola.com

WEB ORRIALDEAK

Ikerketaren egilea

Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua



Consejo de
la Juventud
de Euskadi

Iraguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

inprenta:



BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA

CONSEJO DE LA JUVENTUD DE EUSKADI
EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA

www.egk.org